

Arrasateko
immigrazioaren
gaur egungo
egoeraren
DIAGNOSIA

Atal kuantitatiboa

2018



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

ikus
pegi

Immigrazioaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de Inmigración



AURKIBIDEA

| | |
|--|-----------|
| 1. Sarrera | 5 |
| 2. Atal soziodemografikoa | 7 |
| Bilakaera eta kopurua | 7 |
| Atzerritarrak auzoka | 16 |
| Profila..... | 19 |
| Jatorria..... | 19 |
| Adina | 24 |
| Sexua..... | 27 |
| 3. Gizarteratze eremuak | 31 |
| Egoera administratiboa (egoitza-baimenak)..... | 31 |
| Langabezia eta lan-eskatzaileak | 35 |
| Hezkuntza | 37 |
| Osasuna eta osasun arreta..... | 42 |
| Pobrezia eta diru-laguntzak | 43 |
| Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) | 43 |
| Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) | 48 |
| DBE, GLL eta pobrezia-aren inguruko gogoetak | 49 |
| 4. Ondorioak | 51 |



1

Sarrera

Azken 20 urteetan aldaketa demografiko eta sozial garrantzitsuak eman dira migrazio fluxuen ondorioz. Arrasateko herria ez da salbuespena izan dinamika honetan eta pertsona etorkin atzerritarren etorrerak eragindako aldaketak nabarmenak izan dira azken urte hauetan.

Pasa den mende amaieran hasten da horien agerpena ematen, baina, batez ere, oraingoaren lehendabiziko hamarkadan nabarmentzen dira. Horiek, nagusiki, lan merkatuarekin lotuta egon diren fluxuak izan dira; bertako biztanleriak nahi ez zituen edo betetzera iristen ez zen lanpostuek erakarrita etorri dira, euren bizitza proiektuak hobetzeko asmoz. Biztanleria atzerritarren benetako dei efektua Euskadiko zein Espainiako lan egiturak eragin du, kualifikazio baxuko zenbait merkatu-hobi betetzea behar zuenak, eraikuntza, nekazaritza, ostalaritza edota etxebizitza zein pertsonen zainketa bezalako sektoreetan, nagusiki, baina baita, garrantzi gutxiagorekin, industria edo arrantzari lotutako zenbait zeregin betetzeko ere.

Txosten honek bi zati nagusi izango ditu. Lehendabizikoan udalerrriaren azterketa soziodemografikoa egingo da. Zehazki, jatorri atzerritarra duten pertsonen erakusten duten presentzia, azken urteetan izan duten bilakaera, auzoka erakusten duten banaketa eta aurkezten duten profila aztertuko dira. Arrasateko udalak ahalbidetutako 2019ko urtarrileko datuen eta Estatistikako Institutu Nazionalak –EIN– eroldari buruz eskaintzen dituen 2018ko urtarrileko datuen bidez, Arrasateko immigrazioaren inguruko argazkia aztertzen saiatuko gara.

Horretarako, aldagai ezberdinak kontuan hartuko dira, hala nola, urteetan zehar izan duten bilakaera edota jatorria, sexua zein adinari loturiko irizpide ezberdinak. Konparaketak egin asmoz, gehienetan Arrasateko datuak Gipuzkoa, EAE edota Espainiako datuekin erkatuko dira, udalerriko errealitatea hobeto zehaztu ahal izateko.

Bigarren atalean gizarteratze eta diskriminazioarekin lotura zuzena duten arlo ezberdinak landuko dira, hala nola, aurkezten duten egoera administratiboa, langabezia tasak, osasuna edota hezkuntza esparruetan duten egoera, zein pobrezia maila eta Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentaren –DBE– edo Gizarte Larrialdietako Laguntzen –GLL– erabilpena.

Aipaturiko bi atalen bidez diagnostikoaren lehendabiziko zatia –kuantitatiboa– osatu nahi da, eguneroko elkarbizitzarekin eta integrazioarekin zerikusia duten aspektu ezberdinak landuz. Honen harira, esan beharra dago, zenbaitetan ezinezkoa dela aipaturiko esparru guztietan Arrasateko datuak aztertzea; hori dela eta, kasu horietan EAEkoak edota eskualdekoak eskainiko dira, antzekotasunak nabariak izan daitezkeela kontuan izanik. Horrez gain, gabezia estatistiko hauek direla eta, bigarren zatiari dagozkion arlo batzuk gehiago garatu ahalko dira eta beste batzuk sakontasun gutxiago izango dute.

Atal kuantitatibo honen helburua, Arrasateko immigrazio atzerritarrari buruzko informazioa eskuratzea da. Honek, eta sakoneko elkarrizketa eta eztabaida talde baten bidez landutako txosten kualitatiboak, Arrasateko immigrazioari buruzko diagnostikoa osatzen dute. Agertzen diren gai nagusi, ahulezia zein indarguneetan oinarrituta, Planerako hainbat jarduera eratorriko dira diagnostiko honetatik.



2

Atal soziodemografikoa

Bilakaera eta kopurua

1. taulari begiratzen badiogu, Espainiako, EAeko, probintzia bakoitzeko eta konkretuki Arrasateko biztanleriaren osaketa orokorra ikus dezakegu: guztira zenbat biztanle dituzten, horietatik zenbat diren espainiar edota atzerritar nazionalitatea dutenak, eta azkenik atzerritarren ehunekoak 2018an, 2008an eta 1998an.

EAeko atzerritarren tasa (% 6,9) Espainiakoarekin alderatuta (% 10,1) txikiagoa dela ikusten dugu. Orokorrean, Euskadiko hiru probintziak aurkitzen dira estatuko tasa horretatik urrun, nahiz eta Arabak ehuneko altuagoa erakusten duen (% 8,6). Arrasatekoa (% 6,8) EAekoaren parekoa eta Gipuzkoakoa (% 7,1) baino apur bat txikiagoa da, eta Espainiakoarengandik urrun kokatzen da.

2018. urtean Arrasaten atzerritar nazionalitatea duten 1.488 pertsona daude, eta horien kopuruak bilakaera esanguratsua izan duela ohartzen gara. Izan ere, 1998. urtean soilik 101 ziren, 2008rako 720ra igotzen da horien kopurua eta 2018ra bitartean bikoiztu egiten da. EAE eta Gipuzkoarekin alderatuta, Arrasatek hazkunde handiagoa erakutsi du, hori nabarmenagoa izan delarik azkeneko hamarkadan: atzerritar nazionalitateko pertsonak % 3,3 izatetik % 6,9 izatera igaro dira, % 51,6ko hazkundearekin; Gipuzkoak izandako % 30,6 eta EAek izandako % 22,5eko hazkundeen ondoan.


1. taula. Populazio osoa eta atzerritarra Espainian, EAEn, probintzia bakoitzean eta Arrasaten. 1998, 2008 eta 2018

| | Guztira | Bertakoak | Atzerritarrak | Atzerr. 2018 (%) | Atzerr. Kop. 2008 | Atzerr. 2008 (%) | Atzerr. Kop. 1998 | Atzerr. 1998 (%) |
|----------|------------|------------|---------------|------------------|-------------------|------------------|-------------------|------------------|
| Espainia | 46.722.980 | 41.988.289 | 4.734.691 | 10,1 | 5.268.762 | 11,4 | 637.085 | 1,6 |
| EAE | 2.199.088 | 2.047.569 | 151.519 | 6,9 | 117.337 | 5,4 | 15.198 | 0,7 |
| Araba | 328.868 | 300.597 | 28.271 | 8,6 | 22.840 | 7,4 | 2.460 | 0,9 |
| Bizkaia | 1.149.628 | 1.077.614 | 72.014 | 6,3 | 58.562 | 5,1 | 7.437 | 0,7 |
| Gipuzkoa | 720.592 | 669.358 | 51.234 | 7,1 | 35.562 | 5,1 | 5.301 | 0,8 |
| Arrasate | 22.019 | 20.531 | 1.488 | 6,8 | 720 | 3,3 | 101 | 0,4 |

Iturria: Egileak egina EINeko datuetatik abiatuta.

1998 eta 2018 urteen bitartean izandako bilakaerari erreparatzen badiogu, toki guztietan esanguratsua izan dela ikusten dugu, nahiz eta erritmoak desberdinak izan diren —1. grafikoa—. Espainiak, esaterako, 2008an jada gaur egun baino tasa altuagoa erakusten zuen; beraz, argi dago hazkundera batik bat hasierako urteetan eman zela eta gero nolabait mantendu. EAE eta bertako probintzietan ere 2008ra arte hazkundera nabarmenagoa izan zen, eta 2008tik 2018ra atzerritarren kopuruak gora egin badu ere, hazkundera dezentez mantsoagoa izan da. Arrasaten berriz kontrakoa gertatzen da, 1998tik 2008ra baino —% 0,4tik % 3,3 izatera igarotzen dira— hazkunde handiagoa ematen da azken urte horretatik 2018ra bitartean —% 3,3tik % 6,9ra igarotzen dira— Funtsean, immigrazio fenomenoaz azken urte horietan eman da beraz, eta Espainiako mantentze zein EAE eta probintzietako moteltze joeren aldean, modu egonkorrean goraka jarraitu du atzerritarren kopuruak.

1. grafikoa. Populazio atzerritarraren bilakaera Espainia, EAE, probintzia bakoitzean eta Arrasaten (%). 1998-2008-2018



Iturria: Egileak egina EINeko datuetatik abiatuta.

1. grafikoko lerroek oso argi azaltzen dute bilakaera hori, Arrasatek lerro zuzen garaia —etengabeko hazkundera— irudikatzen duen bitartean, besteek nolabaiteko etenaldia erakusten dute fluxuetan 2008tik aurrera —angelu kamuts formakoa—. Beste era

batera esanda, Espainia, EAE zein Gipuzkoan —eta gainontzeko probintzietan— krisiaren eragina nabaria izan baldin bada jatorri atzerritarra duten pertsonen hazkunde dinamikari dagokionean, Arrasaten ez da gauza bera gertatu eta krisi aurreko tendentzia mantendu da. Alegia, krisia baino lehengo fluxuak ez ziren beste lekuetan bezain handiak, eta krisi ostean ez dute beste lekuetan bezalako etenik izan. Are gehiago, hazkunde gehiago eman da 2008. urtetik aurrera lehenago baino. Joera hau ez da ohikoa eta gainontzeko eremuen dinamikarekin apurtzen du.

Azken urteetan nazionalizazio prozesuek hartu duten garrantzia dela eta immigrazioaren zenbakiak aztertzen direnean gero eta gehiago erabiltzen den irizpidea jaiotza lekuarena da, eta ez horrenbeste nazionalitatearena. Izan ere, espainiar nazionalitatea lortzen duen etorkin batek estatistiketan atzerritarra izateari uzten dio eta espainiar bezala agertzen da, nahiz eta jatorrizko nazionalitatea zein berria mantendu. Gaur egun, erroldak bigarren nazionalitatearen inguruko informaziorik ez duenez eskaintzen, nazionalizazio prozesuak izan duen eragina neurtzeko aldagairik egokiena jaiotza lekua izango litzateke.

Prozesu horrek hainbat akats sorrarazi ditu immigrazioaren zenbaketan, hala nola, estatistiketan agertzen den atzerritar kopurua murriztea, nahiz eta horiek ez diren mugitu gure artetik. Era berean, nazionalizazio prozesua ez da ari era homogeanoan gertatzen jatorri guztien baitan, eta latinoamerikarrak dira nagusiki espainiar nazionalitatea lortzen ari direnak; pentsatu daitekeenez, honek ere nahastea sortzen du barne taldearen osaketari dagokionez.

Zenbaitetan, irizpide bat edo bestea erabiltzeko egiten den hautuaren arabera, desberdintasun nabarmenak ematen dira. 1. taulan nazionalitatea hartzen da kontuan, aldiz atzerrian jaiotakoaren kopuruei eta ehunekoei erreparatzen badiegu —2. taula— Arrasateko errealitatea aldatu egiten da. Ohikoa den moduan, ehunekoa handitu egiten da: % 6,8tik % 9,3ra igarotzen delarik —izan ere, datu honek jadanik nazionalizazio espainiarra lortu duten, baina atzerrian jaiotakoak direnak kontuan hartzen ditu—. Berrito ere, EAE zein Gipuzkoako datuetatik gertu kokatzen da Arrasatekoa, EAEn % 9,4 direlarik atzerrian jaiotakoak eta Gipuzkoan % 9,5. Eta estatuko datutik urrun (% 13,7), 4 puntu eta erdiko aldearekin.

2. taula. Atzerrian jaiotakoaren kopuruak eta ehunekoak Espainian, EAEn, probintzia bakoitzean eta Arrasaten. 2018

| | Atzerrian jaiotakoaren kop. | Atzerrian jaiotakoaren % |
|----------|-----------------------------|--------------------------|
| Espainia | 6.386.904 | 13,7 |
| EAE | 206.530 | 9,4 |
| Araba | 37.381 | 11,4 |
| Bizkaia | 100.640 | 8,8 |
| Gipuzkoa | 68.509 | 9,5 |
| Arrasate | 2.057 | 9,3 |

Iturria: Egileak egina EINEko datuetatik abiatuta.

EAE mailan atzerrian jaiotako pertsonen kopurua nazionalitate atzerritarra dutenena baino altuagoa da —2. grafikoa—. Bi datu horien arteko aldea areagotu egin da urtez urte zenbateko absolutuetan, batez ere, nazionalizazio-prozesua areagotzearen ondorioz.


2. grafikoa. EAEko populazio atzerritarra eta atzerrian jaiotakoen bilakaera. 2002-2018



Iturria: Egileak egin EINEko datuetatik abiatuta.

3. grafikoari erreparatzen badiogu, Arrasateko kasuan ere antzeko zerbait gertatzen dela ikusten dugu; naiz eta nazionalizazio prozesu hori EAEn baino berantiarra izan den, gehien bat azken urteetan nabarmentzen da hemen ere bi datuen arteko aldea, 2014tik aurrera hain zuzen.


3. grafikoa. Arrasateko populazio atzerritarra eta atzerrian jaiotakoen bilakaera. 2002-2018



Iturria: Egileak egin EINEko datuetatik abiatuta.

2018eko ehunekoei begiratzen badiogu —4. grafikoa— Arrasateko kasua Gipuzkoa eta EAEkoaren oso antzekoa dela ikusten dugu, eta beraz, antzeko joerak eta jatorriak nabarmentzen direla pentsa liteke; hori aurrerago aztertuko bada ere.


4. grafikoa. Nazionalitate atzerritarra eta atzerrian jaio direnen ehunekoak Espainian, EAEn, probintzia bakoitzean eta Arrasaten. 2018



Iturria: Egileak egina EINeko datuetatik abiatuta.

5. grafikoan ikusi daitekeen modura, bi abiadura desberdin nabarmentzen dira nazionalizazio prozesuetan EAEn: Latinoamerikan jaio direnen artean % 47,3ak espainiar nazionalitatea lortu du —Kolonbia edo Ekuadorretik etorritakoen artean ehunekoa 50etik gora kokatzen da—, Ozeanian jaiotakoen artean are handiagoa da nazionalitatea lortu dutenen ehunekoa (% 68,5), dena den kontuan izan behar da jatorri horretako 406 pertsona soilik ditugula EAEn. European jaiotakoen artean ere esanguratsua da ehunekoa (% 12,6), nahiz eta aurreko jatorriekin alderatuta askoz txikiagoa izan. Aldiz Magreb, Saharaz hegoaldeko Afrika eta Asian jaiotakoen artean oso txikia da nazionalitate espainiarra lortu dutenen tasa —% 3,5; % 3,3 eta % 3,3, hurrenez hurren—.

5. grafikoa. Nazionalitate atzerritarra eta atzerrian jaio direnen ehunekoak jatorri-zonaldearen arabera EAEn. 2018



Iturria: Egileak egina EINeko datuetatik abiatuta.

Dena den, Magreb eta Saharaz hegoaldeko Afrikak igoera erakusten dute azken urteetan, 2015ean esaterako, magrebtarren artean nazionalitate espainiarra lortu zutenen ehunekoa 0,7koa zen eta Saharaz hegoaldeko afrikarren artean 1,5koa;

Asiarrena berriz % 5,5ekoa, gaur egungoa baino handiagoa. Pentsa liteke, jatorri horretakoen etorrera igo dela azken urteetan edota haurrak izan dituztela, eta horiek gurasoen nazionalitatea eskuratu.

Ezberdintasun hauek ez dira ausaz ematen eta faktore desberdinek eragiten dute honetan. Espainiar nazionalitatea lortzeko baldintza erabakigarria egonaldiaren iraupena da; izan ere, gero eta denbora gehiago eraman Espainian orduan eta aukera gehiago denboraren eskakizuna betetzeko eta nazionalitatea lortzeko. Baina horri beste elementu bat gehitu behar zaio, hain zuzen ere jatorriaren arabera bete beharreko baldintzak aldatu egiten direla; hau da, eskatzen den egonaldia luzeagoa edota motzagoa izaten dela etorkinen jatorriaren arabera.

Latinoamerikarren kasuan, esaterako, egoitza baimena lortu eta bi urtetara egin dezakete jada nazionalitate espainiarra lortzeko eskaera. Afrika edota Asiako jatorria duten pertsonentzat, aldiz, epe hori hamar urtera luzatzen da. Europarren kasuan, kontuan izan behar da jadanik Europar Batasunaren barnekoak izanik espainiar nazionalitatea lortzeko interesa gehienetan ez dela handiegia, are gutxiago kontuan hartzen bada hainbat kasutan espainiar nazionalitatea lortzeak eurenari uko egitea esan nahi duela. Dena den, hauentzat ere malguagoak dira irizpideak.


Orokorrean, jatorri latinoamerikarreko jendea beste zenbait tokitakoa baino lehenago iritsi zela eta gainera baldintza malguagoak dituztela kontuan hartzen bada, errazago ulertu daiteke zergatik ematen diren 5. grafikoak erakusten dizkigun ezberdintasun esanguratsuak.

Arrasateko kasuan, EA Eren antzeko joera nabarmentzen da —6. grafikoa—; latinoamerikarrena da espainiar nazionalitatea eskuratu duen kolektibo nagusia, EA Eko antzeko ehunekoarekin (% 46). Horien artean, erdia baino gehiago Latinoamerikan jaio dira, baina espainiar nazionalitatea jada badute, gehienek jatorrizko nazionalitatea ere mantentzen dutelarik. Gainerako jatorri-zonaldeetakoek baitan txikia da espainiar nazionalitatea lortu dutenen tasa. Kasu honetan Europakoek artean ere esanguratsua da nazionalitatea lortu dutenen portzentajea (% 37,8), EA Ekoa baino nahiko altuagoa. Kontuan izan behar da, hauek irizpide malguagoak izateaz gain, aspaldi etorritakoak direla —azken urteetan euren presentzia txikitu egin da, hurrengo 16. grafikoak erakusten duenez—, eta beraz, denboraren baldintza aski bete izan dezaketela.

Magreben kasua, bereziki apartekoa da, atzerrian jaiotakoen kopurua magrebtar nazionalitatea dutenena baino txikiagoa baita. Hasiara batean datu hauek bitxiak edo kontrajarriak eman dezakete; alegia, jatorrizko lurraldean jaiotakoak baino gehiago izatea jatorri horretako nazionalitatea duten pertsonak. Aitzitik, batzuetan gertatzen da, eta beraz, ez dira harrizkeoak. Zentzu horretan, kontuan hartu behar dugu Espainian jaiotzeak ez duela automatikoki espainiar nazionalitatea bermatzen, zenbait kasutan gurasoen nazionalitatea da nagusitzen dena, baldin eta jatorrizko herrialdeko legediak hala esaten badu. Hori da, hain zuzen ere, Magreb-ekin gertatzen

dena: bertako legediaren arabera guraso magrebtarrak dituen edozein pertsonak, jaiotzen den lurraldean jaiotzen dela ere, beti magrebtar nazionalitatea izango du.

6. grafikoa. Nazionalitate atzerritarra eta atzerrian jaio direnen ehunekoak jatorri-zonaldearen arabera Arrasaten. 2018



Iturria: Egileak egin EINEko datuetatik abiatuta.

Jatorri horren baitan bigarren belaunaldi baten agerpenaren inguruko informazioa igortzen digute datuek, hortaz. Marokoar nazionalitatea duten 290 pertsona daude eta herrialde horretan jaiotakoak 280 dira, aljeriar nazionalitateak berriz 92 dira eta bertan jaiotakoak 87. Marokoar nazionalitatea duten 10 haur daude Arrasaten ondorioztatu liteke beraz, eta aljeriar nazionalitatea duten 5 haur; bertan jaiota ere, beraien gurasoen jatorrizko nazionalitatea eskuratu dutenak.

Guzti horrengatik —nahiz eta Magreb-eko kasuan nazionalitatearen datuak kolektiboa hobeto irudikatu dezakeen, baina edonola ere aldeak ez dira handiegiak—, atzerrian jaiotakoen datua nazionalitatearena baino datu errealagoa izan daitekeela uste da, atzerritik etorri diren pertsona guztiei egiten diolako erreferentzia. Gainera, etorkizunean irizpide honek informazio zehatzagoa eta baliagarriagoa emango digu. Hori dela eta, aurrerantzean, datu horri egingo zaio erreferentzia posible den guztietan, txosten honetan zehar.

Atzerrian jaiotakoek azken urteetan Espainian, EAEn eta Arrasaten erakutsi duten bilakaerari dagokionez, antzeko joerak nabarmentzen dira hiruretan —ñabardurekin—, eta fase desberdinez hitz egin daiteke:


1. Lehendabiziko urteetan (1998-2000) fenomenoaren hastapenak ematen dira, atzerriko immigrazioa gero eta errealitate garrantzitsuagoa bihurtzen hasten da, baina horien presentzia oraindik txikia da.
2. Ondorengo urteetan (2002-2004) finkatze aldi bat ematen da.
3. Jarraian areagotze bat (2004-2008), migrazio-hazkunde handiena erregistratzen delarik urte horietan.

4. 2009tik aurrera krisi ekonomikoaren eragina nabarmentzen hasten da, eta hazkunde-erritmoa modu esanguratsuan jaisten da.
5. 2013tik krisiaren ondorioen finkatze-aldi bat ematen da.
6. Eta azken urteetan (2016-2018) berriro goranzko joera bat nabarmentzen da.

Funtsean, bi etapa handi izan direla esan daiteke: lehendabizikoa ekonomia-hazkunderari lotua, atzerriar biztanleria etengabe eta nabarmen hazi zenekoa; eta bigarrena, krisialdi ekonomikoari lotua, kolektibo horren hazkundera nabarmen geldotu dena.

Edonola ere, badira desberdintasunak Espainia, EAE eta Arrasateko kasuetan. 7. grafikoan oinarritzen bagara, estatuan, eta batik bat hasierako urteetan, atzerriar jaiotakoek hazkundera nabarmenagoa izan zela ikusten dugu; EAEn eta Arrasaten, berriz, mantsoagoa. Azken urteei dagokionez ordea, Espainian 2012tik beherakada bat ematen da atzerriar jaiotakoek tasan, EAEn mantentze joera bat nabarmentzen da eta Arrasaten berriz etengabe goraka jarraitzen du tasa horrek, mantentze joera soilik azken pare bat urteetan agertze zaigularik. Beraz, Arrasatek hazkunde esanguratsua erakutsi du urtez urte, eta krisialdi garaian ez du beheranzko joerarik agertu, alderantziz, ehunekoek modu esanguratsuan haziz jarraitu dute —nazionalitateak aztertzerakoan ikusitakoaren antzera—.

7. grafikoa. Atzerriar jaiotakoek bilakaera Espainia, EAE eta Arrasaten (%). 1998-2018




Iturria: Egileak egin EINEko datuetatik abiatuta.

Hazkunde hori azaltzeko arrazoi ezberdinak daude: alde batetik, jada ikusi dugun bezala, EAE zein Arrasateko etorkinen kopuruak Espainiakoak baino baxuagoak izan dira hasieratik, eta horrek, hein batean, etorkin gehiago etortzen jarraitzea ahalbidetu du, nahiz eta krisi garaia izan. Bestetik, ezin da ahaztu krisiaren eragina EAEn txikiagoa izan dela eta horrek ere krisialdian fluxuak ez jaitea posible egin du. Honen erakuslea da, esaterako, krisia baino lehen EAEn etortzen ziren atzerriar

gehienak euren jatorrizko lurraldetik zuzenean etortzea; eta krisi garaian, aldiz, gehiago izatea aurrez Espainiako beste erkidego batzuetan egon direnak.

Arrasateko atzerrian jaiotako pertsonen urteroko hazkunderari begiratzen badiogu -8. grafikoa-, urtero gehikuntza bat eman dela ikusten dugu. Gehikuntza horren puntu gorena 2009an ematen da, atzerrian jaiotako 184 pertsona gehiago erregistratzen direlarik. Dena den, beste hainbat urtetan ere hazkunde esanguratsuak izan dira, hots, 2005 —139 pertsona gehiago—, 2008 —144 pertsona gehiago—, 2012 —147 pertsona gehiago—, 2014 —151 pertsona gehiago— edo 2018an —131 pertsona gehiago—. Esan liteke beraz, Arrasateko kasuan krisi ekonomikoa ez dela gehiegi nabarmendu eta pertsona atzeritarren etorrera konstantea izan dela.


8. grafikoa. Atzerrian jaiotako biztanleriaren urtez urteko hazkunderaren bilakaera Arrasaten (kopuru absolutuak). 2002-2018



Iturria: Egileak egin a EINEko datuetatik abiatuta.

Hazkunderari dagokionez, EAE eta Arrasateko kasuak alderatzen baditugu —9. grafikoa— bi lekuetako joerek oro har antzekotasunak izan dituztela ohartzen gara: hasierako urteetan hazkunde esanguratsuenak ematen dira eta aldiz krisiaz geroztik horiek txikitu egiten dira. Dena den, bada desberdintasunik bi lekuen artean: hasteko, lehendabiziko urteetan Arrasaten hazkunde dezentez handiagoak nabarmentzen dira EAEn baino; 2006tik 2008ra bitartean, nolabait parekatu egiten dira; eta hortik aurrera, berriro ere Arrasateko hazkundeak EAEkoen gainetik gailentzen dira. Salbuespena 2016an aurkitzen dugu, EAEko hazkundera handiagoa delarik, baina EAEn 2013 eta 2014an balio negatiboak erregistratzen diren bitartean, Arrasaten hazkunde nabarmenak ematen dira. Azken bi urteetan nahiko parekatuta eman dira hazkunde horiek.

9. grafikoa. Atzerrian jaiotako biztanleriaren urteroko hazkundearen bilakaera EAEn eta Arrasaten (%). 2003-2018



Iturria: Egileak egin EINEko datuetatik abiatuta.

7., 8. eta 9. grafikoak ikusirik, badirudi EAEn kasuan atzerrian jaiotakoen bilakaerari dagokionez 6. fase batez edo hirugarren etapa handi batez hitz egin daitekeela: post-krisi eszenatoki batez, hain zuzen. Krisiaren ondorioen finkatze aldi bat eman ostean, azken urteetan —2015-2018— gorakada bat antzeman da —txikia izanik ere—, errekupeazio joera bat. Arrasaten berriz, mantentze joeraz hitz egingo genuke gehiago, eta ez horrenbeste errekupeazioaz, EAEn alderatuta ez dagoelako horrenbeste errekupeatzeko. Ikusi beharko da datorren urteetan zer gertatzen den, momentuz ordea, krisiaren ondorioak ez direla hain nabarmenak izan esan daiteke, eta zentzu horretan post-krisi nabarmenik ere ez dela eman bertan.

Atzerritarrak auzoka

Pertsona atzerritarrek Arrasateko herrian aurkezten duten banaketa ez da berdina, eta auzo batzuetan atzerritarrik bizi ez den bitartean, beste hainbatetan kopuruak esanguratsuak dira. 3. taulak argi erakusten digu auzoen arteko desberdintasun hori:

3. taula. Arrasateko auzo bakoitzean bizi diren bertako eta atzerritarren kopurua. 2019


| Arrasateko auzoak | Bertakoak | Atzerritarrak |
|-------------------|-----------|---------------|
| Bedoña | 79 | 1 |
| Garagartza | 122 | 3 |
| Gesalibar | 417 | 19 |
| Udala | 36 | 6 |
| Hirigune zaharra | 8.296 | 686 |

| Arrasateko auzoak | Bertakoak | Atzerritarrak |
|----------------------------------|-----------|---------------|
| Musakola | 2.347 | 94 |
| San Andres | 2.349 | 297 |
| Santa Marina | 1.975 | 148 |
| Uribarri | 4.614 | 329 |
| San Andres - baserri auzoa | 47 | 3 |
| Uribarri - baserri auzoa | 43 | 6 |
| Garagartza - baserri auzoa | 69 | 0 |
| Meatzerreka - baserri auzoa | 50 | 0 |
| Musakola - baserri auzoa | 36 | 0 |
| Zadispe-Zaldibar - baserri auzoa | 43 | 0 |
| Guztira | 20.523 | 1.592 |

Iturria: Arrasateko Udala.

Jarraian aurkezten den 10. grafikoan nabarmendu daitekeenez, 5 izango lirateke etorkinen presentzia handiena duten auzoak Arrasaten. Hirigune Zaharra nagusitzen da, atzerritarren ia erdia bertan bizi delarik (% 44). Uribarrik (% 21) eta San Andresek (% 19) jarraitzen diote; eta horiei Santa Marinak (% 10) eta Musakolak (% 6), aurrekoekin alderatuta proportzioak txikiagoak izanik ere, presentzia esanguratsua erakusten baitute.


10. grafikoa. Arrasateko auzo populatuenak atzerritar populazioarengandik (%). 2019



Iturria: Egileak eginga Arrasateko Udaleko datuetatik abiatuta.

Dena den, etorkinen banaketak nolabait autoktonoenari jarraitzen diola ohartzen gara, bertako pertsona gehienak ere aipaturiko 5 auzo horietan bizi baitira nagusiki —3. taula—. Proportzioei begiratuta —11. grafikoa—, atzerritarrenak eta bertakoenak ia-ia errepikatu egiten direla ikus daiteke. Ematen den desberdintasunik adierazgarriena izango litzateke Musakolan bertakoen proportzioa nabarmenagoa dela —% 12, atzerritarren % 6aren ondoan— eta, alderantziz, San Andresen atzerritarren presentzia esanguratsua dela —% 19, bertakoen % 12aren ondoan—.


11. grafikoa. Arrasateko auzo populatuenak bertako biztanleriarengandik (%). 2019



Iturria: Egileak egin Arrasateko Udaleko datuetatik abiatuta.

Auzo bakoitza aztertzeraz igarotzen bagara —12. grafikoa—, jadanik ikusitakoa berresten zaigu: San Andres da etorkinen proportzio altuena biltzen duen auzoa (% 12,64), eta Hirigune Zaharrak (% 8,27), Santa Marinak (% 7,49) eta Uribarrik (% 7,13) jarraitzen diote. Musakola eta baserri auzoetan, presentzia esanguratsua izanik ere, portzentaje baxuagoak erakusten dituztelarik.

12. grafikoa. Bertako eta atzerriko populazioaren proportzioak auzoka. 2019



Iturria: Arrasateko Udala.

Auzo bakoitzean bizi diren atzerritarren jatorriari erreparatzen badiogu, horiek nahasian ageri zaizkigu. Hau da, ez dira jatorri jakineko etorkinak auzo jakinetan pilatzen; auzo guztietan jatorri desberdinetako pertsonen presentzia nabarmentzen delarik:

- Etorrin gehien dituen auzoarekin hasita, Hirigune Zaharrean marokoarrak dira nagusi (114 pertsona), eta pakistandarrek (62), kolonbiarrek (60) eta Hondurasekoek (59) jarraitzen diete, jatorri nagusikoen kopuruaren erdian kokatuz.

- Uribarriko kasuan antzeko errealitatea marrazten da: berriro Marokokoak nagusitzen dira (95), eta pakistandarrek (49), kolonbiarrek (35) eta Hondurasekoek (21) jarraitzen diete.
- San Andres auzoan ere jatorri berberak nabarmentzen dira, alabaina, kasu honetan Pakistan (58) eta Kolonbia (57) ditugu jatorri nagusi, eta Maroko (37) zein Honduras (33) bigarren maila batean.
- Santa Marinan pakistandarrak nagusitzen dira (30), eta argeliarrek (16), marokoarrek (15) eta portugaldarrek zein kolonbiarrek (12) jarraitzen diete.
- Azkenik, Musakolan, Marokokoak dira nagusi berriro (24) eta Pakistanekoek jarraitzen diete (14).

Badirudi beraz, datuei begiratuta, ez dela auzo konkretuetan atzerritar populazioaren segregaziorik ematen, bertakoen tendentziak jarraitzen direla eta eurekin nahasian ageri direla. Eta ez dela jatorriaren araberako ghetifikaziorik ere ematen. Dena den, kontutan hartzekoa da zati kualitatiboan elkarrizketatu askok aipatutako Txaxeta auzoko errealitatea, Etxebide zein Alokabidek auzo horretan kokatu ditu azken urteetan atzerritar ugari, eta herritarrek nolabaiteko ghetifikazioa hautematen dute.

Profila

Jatorria

Etorkinen kopuruak eta denboran zehar izan duten bilakaera aztertu ondoren, Arrasateko jatorri atzerritarra duten etorkinen profila aztertuko da. Ahal den kasuetan udalak ahalbidetutako 2019ko urtarrilaren 1eko datu gaurkotuenak erabiliko dira —atzerritar nazionalitateak—; gainontzekoetan berriz, EINek 2018erako eskaintzen dituen datuak —atzerritar jaiotakoenak—.

Arrasateko udalak ahalbidetutako datuen arabera —4. taula—, nazionalitate nagusia marokoa da (% 18,2). Horri pakistandarrak (% 13,5), kolonbiarrek (% 10,6) eta hondurastarrak (% 7,6) jarraitzen diote, eta lau jatorri horiek populazio atzerritar guztiaren erdia (% 49,9) osatzen dute.

4. taula. Etorkin atzerritarren kopurua eta ehunekoa Arrasaten. 2019

| NAZIONALITATEA | Kopurua | % |
|----------------|---------|-------|
| Atzerritarrek | 1.598 | 100,0 |
| Maroko | 291 | 18,2 |
| Pakistan | 215 | 13,5 |
| Kolonbia | 169 | 10,6 |


| NAZIONALITATEA | Kopurua | % |
|-----------------------|---------|-----|
| Honduras | 122 | 7,6 |
| Aljeria | 88 | 5,5 |
| Portugal | 87 | 5,4 |
| Sahara | 60 | 3,8 |
| Nikaragua | 54 | 3,4 |
| Bolivia | 46 | 2,9 |
| Txina | 42 | 2,6 |
| Venezuela | 38 | 2,4 |
| Dominikar Errepublika | 34 | 2,1 |
| Mauritania | 28 | 1,8 |
| Brasil | 25 | 1,6 |
| Errumania | 24 | 1,5 |
| Britania Handia | 18 | 1,1 |
| Ekvador | 18 | 1,1 |
| Nepal | 18 | 1,1 |
| Bulgaria | 13 | 0,8 |
| Polonia | 12 | 0,8 |
| Kuba | 12 | 0,8 |
| Peru | 12 | 0,8 |
| Frantzia | 11 | 0,7 |
| Italia | 9 | 0,6 |
| Kongo | 9 | 0,6 |
| Boli Kosta | 8 | 0,5 |
| Estatu Batuak | 8 | 0,5 |
| Mexiko | 8 | 0,5 |
| Paraguai | 8 | 0,5 |
| India | 8 | 0,5 |
| Senegal | 7 | 0,4 |
| Siria | 7 | 0,4 |
| Herbehereak | 6 | 0,4 |
| Alemania | 6 | 0,4 |
| Txile | 6 | 0,4 |
| Nigeria | 5 | 0,3 |
| Palestina | 5 | 0,3 |
| Ekvatore Ginea | 4 | 0,3 |
| Guatemala | 4 | 0,3 |
| Australia | 4 | 0,3 |
| Irlanda | 3 | 0,2 |
| Ukraina | 3 | 0,2 |
| Georgia | 3 | 0,2 |
| Ginea | 3 | 0,2 |
| Uruguai | 3 | 0,2 |
| Grezia | 2 | 0,1 |
| Suedia | 2 | 0,1 |

| NAZIONALITATEA | Kopurua | % |
|----------------------------|---------|-----|
| Txekiar Errepublika | 2 | 0,1 |
| Errusia | 2 | 0,1 |
| Liberia | 2 | 0,1 |
| Afrika Erdiko Errepublika | 2 | 0,1 |
| Kongoko Errep.Demokratikoa | 2 | 0,1 |
| El Salvador | 2 | 0,1 |
| Argentina | 2 | 0,1 |
| Tailandia | 2 | 0,1 |
| Turkia | 2 | 0,1 |
| Belgika | 1 | 0,1 |
| Letonia | 1 | 0,1 |
| Bosnia-Herzegovina | 1 | 0,1 |
| Kroazia | 1 | 0,1 |
| Ghana | 1 | 0,1 |
| Niger | 1 | 0,1 |
| Uganda | 1 | 0,1 |
| Costa Rica | 1 | 0,1 |
| Haiti | 1 | 0,1 |
| Indonesia | 1 | 0,1 |
| Iran | 1 | 0,1 |
| Japonia | 1 | 0,1 |
| Azerbaijan | 1 | 0,1 |

Iturria: Arrasateko Udala.

Kontinenteen arabera erakusten duten banaketa 13. grafikoan ikus dezakegu. 2019an jatorri nagusia Amerika da (% 36), eta gehien bat latinoamerikarrak —guztira dauden 573 amerikarren artetik, Estatu Batuetatik etorritako 8 pertsona izan ezik gainerakoak erdialde edo hegoaldeko amerikarrak direlarik—. Bigarrenik Afrika nagusitzen da (% 32) eta gehien bat magrebtarrak —512 afrikarren artetik 407 direlarik—. Hirugarrenik Asia (% 19) jatorri nagusia Pakistan delarik —303 asiarretatik 215—, laugarrenik Europa (% 13) portugaldarrak direlarik guztien ia erdia, eta azkenik Ozeaniako en pisua hutsala da, nazionalitate horretako soilik 4 pertsona baitaude Arrasateko herrian.


13. grafikoa. Arrasateko atzerritarren banaketa kontinenteka (%). 2019



Iturria: Arrasateko Udala.

Atzerrian jaiotakoen datua aztertzer pasatzen bagara, eta Arrasateko errealitatea Gipuzkoa eta EAEkoarekin alderatzen badugu, hiru lekuetan jatorri-zonaldeen arabera banaketa nahiko antzekoa aurkitzen dugu —14. grafikoa—; dena den, badira zenbait desberdintasun. Jatorri nagusi gisa Latinoamerika agertzen zaigu, alabaina, jatorri hori esanguratsua izanik ere Europa gailentzen da Gipuzkoako kasuan (% 36,6), erdialdeko eta hegoaldeko amerikarren % 33,6rekin alderatuz; horien artean, Errumania, Portugal edota Frantzia nabarmentzen dira jatorri nagusi gisa. Arrasaten europarren pisua txikia da —portugaldarren presentzia esanguratsua izanik ere— beste lekuekin alderatuz, eta nagusiki asiarren pisu handiagoak konpentsatzen du alde hori. EAE eta Gipuzkoan erakusten duten pisuaren bikoitza dute azken horiek Arrasaten, eta horien artean pakistandarrek dira nagusi. Magrebtarren eta Saharaz hegoaldeko afrikarren ehunekoa esanguratsua da hiru lekuetan, eta tasak oso antzekoak dira. Azkenik, Estatu Batuetakoen, Kanadakoen eta Ozeaniakoen presentzia hutsala da hiru lekuetan.

14. grafikoa. Atzerrian jaiotakoen ehunekoa jatorriaren arabera Arrasate, Gipuzkoa eta EAEen. 2018



Iturria: Egileak egina EINEko datuetatik abiatuta.


Banaketa ezberdin honi lotuta, Ikuspegiren 2018ko Barometroa —autoktonoek jatorrien arabera erakusten duten begikotasun-maila azaltzen duena 0tik 10erako eskala erabiliz— kontuan hartzen badugu, jatorri begikoenak Mendebaldeko Europar Batasuna eta Argentina dira —6,5 eta 6,3ko puntuazioarekin, hurrenez hurren—. Aldiz, begikotasun txikiena magrebtarrek (4,8), errumaniarrek (5,1) eta pakistandarrek (5,3) dute. Arrasateko kasuan magrebtarrek eta pakistandarrek pisu esanguratsua erakusten dute eta gainera azken urteetan hazi egin dira. Jatorri horietan arreta berezia jartzea beharrezkoa izango da hortaz, horien gizarteratzeari eta Arrasateko bizikidetzari giro armoniatu bati begira.

Dena den, aurrez aipatu bezala, jatorri esanguratsuen erdialde eta hegoaldeko amerikarrena da, horiek bertakoengandik sinpatia maila hobea erakusten dutelarik.

Besteak beste, Kolonbia, Bolivia, Honduras eta Nikaragua dira nagusitzen diren jatorriak, horiek 6 edo 6,1eko sinpatia jasotzen dutelarik. Azken horien kasuan gizarteratze prozesu eta bizikidetzan erraztasun gehiago eman daitezkeela pentsa liteke.

Hala ere, 15. grafikoan¹ ikus daitekeen modura, izan da aldaketarik Arrasateko atzerrian jaiotako pertsonen banaketan. Hasierako urteetan jatorri nagusiak Europa eta erdialdeko eta hegoaldeko Amerika ziren, afrikarren eta asiarren presentzia, berriz, deuseza zen. Urteetan aurrera egin ahala, latinoamerikarren pisua etengabe haziz joan da eta gainerako jatorriekin alderatuz itzela izan da hazkundera, gaur egun, alde nabarmenarekin, jatorri nagusia delarik. Afrikarrek eta asiarrek hasieran pisu eta hazkunde txikia erakusten zuten, aldiz 2008tik aurrera asiarren eta magrebtarren gorakada bat ematen hasten da, 2010etik aurrera are nabarmenagoa bihurtzen dena asiarren kasuan eta, 2012tik aurrera magrebtarrenena. Saharaz hegoaldeko afrikarren presentzia ere urte horretatik aurrera hasten da nabarmentzen, ordura arte jatorri horretako oso jende gutxi zegoelarik herrian. Europarrek erakutsi duten bilakaera desberdina izan da, lehendabizikoetarikoak izan ziren iristen eta 2012ra arte haziz jarraitu zuen kopuruak, aldiz hortik aurrera beherakada bat nabarmentzen da.

15. grafikoa. Atzerrian jaiotako biztanleriaren jatorri-zonaldeen arabeko bilakaera Arrasaten, 2002-2018




Iturria: Egileak egina EINEko datuetatik abiatuta.

¹Europar Batasuneko datua erabili beharrean Europakoa erabiltzeko hautua egin da, bestela, urte desberdinen arteko konparaketak egiterakoan desorekak agertzen baitira. Izan ere, Europar Batasuna bere sorreratik haziz joan da, herrialde gehiago atxiki direlarik bertara.

Jatorrietan eman den bilakaera hori modu bisualagoan ikus daiteke 13. grafikoan, horrek 2002an, 2006an, 2010ean, 2014ean eta 2018an Arrasaten nagusitzen diren jatorrien argazkia jasotzen du. Lehendabiziko urte horretan europarren eta latinoamerikarren pisua nabarmentzen dira, gainerako jatorrien presentzia oso txikia delarik. Latinoamerikarren pisua denboran zehar mantendu egin bada, europarrena asko txikitu da, % 41,6tik % 12ra igaroz. Jatorri horretakoen pisua gutxituz joan den bitartean, beste batzuetakoa hazi egin da, hots, magrebtarrena —% 4,9tik % 17,8ra igaroz—, asiarrarena —% 4tik % 16,3ra igaroz, nahiz eta azken urteetan apur bat gutxitu— eta neurri txikiagoan Saharaz hegoaldeko afrikarrena —% 3,1etik % 7ra igaroz, 2006 eta 2010ean % 1era ere iristen ez zirelarik—.

16. grafikoa. Atzerrian jaiotakoehunekoak jatorriaren arabera Arrasaten. 2002, 2006, 2010, 2014, 2018



Iturria: Egileak egin EINEko datuetatik abiatuta.


Laburbilduz, beraz, gaur egun EAE eta Gipuzkoako migrazio patroia antzekoak ematen badira ere, lehendabiziko etorkinak agertzen hasi zirenetik gaur egun arte izan dela aldaketarik esan daiteke. Eta Arrasateko kasua bereizgarri egiten duen ezaugarria herrialde magrebtarretatik eta Asiatik etorritakoen presentzia esanguratsua izango litzateke; eta europarrek erakusten pisu txikia.

Adina

Adinari buruzko datuei erreparatzen badiegu EAE, Gipuzkoa eta Arrasaten populazio atzeritarra orokorrean bertako biztanleria baino gazteagoa dela ikusten dugu —17. grafikoa—. Oso gutxi dira 65 urtetik gorako pertsonak, gehiengoa 15 eta 64 urte bitartean kokatzen delarik².

²Gipuzkoako eta EAEko kasuan adinei buruzko informazio zehatzagoa eskuragarri jartzen du EINEk -2018ko datuak-, eta bi kasuetan atzeritar populazioaren erdia 25 eta 44 urte bitartean kokatzen da, Gipuzkoan % 49,7 eta


17. grafikoa. Arrasateko, Gipuzkoako eta EAEko populazioaren adin-taldean araberako banaketa (nazionalitateak) (%). 2018



Iturria: Egileak egina EINEko datuetatik abiatuta.

Arrasateko udalak ahalbidetutako datu zehatzagoak aztertzer pasatzen bagara —18. grafikoa—, atzerritarren gehiengoa 30 eta 39 urte bitartean kokatzen da (% 28,6). Askok dira 20 eta 29 urte bitartean (% 19,9) edo 40 eta 49 urte bitartean (% 18,3) kokatzen direnak ere. Beraz, 20 urtetik 49ra bitartekoek atzerritarren % 66,7 osatzen dute. Gazteen artean duten pisua ere esanguratsua da, 19 urte bitartean daudenek atzerritarren % 20 osatzen dutelarik. Azkenik, kopuru esanguratsu bat 50 eta 59 urte bitartean kokatzen da (% 8,6). Aldiz, 60 urtetik gorakoek artean erakusten duten pisua hutsala da, % 5era ere iristen ez direlarik.

18. grafikoa. Arrasateko atzerritarren adin-taldean araberako banaketa (nazionalitateak). 2019



Iturria: Egileak egina Arrasateko Udaleko datuetatik abiatuta.

EAEn % 50,3, bertakoen ehunekoa adin tarte berean % 23,4 eta % 23,8 delarik, hurrenez hurren. Are gehiago, 20-49 urte bitartekoek artean % 65,2 dira atzerritarrak Gipuzkoako kasuan eta % 65,9 EAEn; bertakoen ehunekoak 35,5 eta 35,8 diren bitartean. Arrasateko kasuan ere gauza bera gertatzen dela pentsa daiteke.

Batez bestekoak aztertzen baditugu —5. taula—, Arrasaten bizi diren pertsona atzerritarren batez besteko adina 31 urtekoa da³, oso gazteak dira beraz, oro har. Adin altuena europarrek erakusten dute, dena den, 38 urtetan kokatzen da; amerikarrek jarraitzen diete —Latinoamerika, funtsean— 31 urteko batez bestekoarekin; asiarrak 29 urtetan kokatzen dira eta afrikarrak lirateke gazteenak, batez beste 27 urteko adina erakusten dutelarik. Ozeaniakoak soilik 4 pertsona dira, beraz batez bestekoa ez da esanguratsua.

Sexuari erreparatuta, orokorrean emakumeak apur bat gazteagoak dira gizonak baino; kontinenteka aztertuta, afrikarren artean ematen da emakume eta gizonen arteko alde nabariena, gainerakoetan oso parekatuta ageri dira adinak.

5. taula. Arrasateko populazio atzerritarren batez besteko adina kontinenteka eta sexuaren arabera. 2019

| KONTINENTEA | Emakumeak | Gizonak | Guztira |
|-------------|-----------|---------|---------|
| EUROPA | 37 | 39 | 38 |
| AFRIKA | 25 | 29 | 27 |
| AMERIKA | 31 | 31 | 31 |
| ASIA | 29 | 29 | 29 |
| GUZTIRA | 30 | 32 | 31 |

Iturria: Arrasateko udala.

Horrek baditu bere onurak gizartean, immigrazioak gaztetu egiten baitu bertako egitura demografikoa. Biztanleria gazteagoa izateak lan egiteko adinean dagoen jende gehiago egotea esan nahi du, baita erreproduzitzeko garaian dagoen jendearen areagotzea eta jaiotza-tasa igotzea ere. Era berean, aurkeztutako grafikoak erakusten duen populazio atzerritarren gaztetetasunak argi frogatzen du nagusiki lan egitera etortzen direla, izan ere gehien-gehienak populazio aktiboaren baitan kokatzen dira.

Ez da berdina gertatzen bertako populazioarekin. Horien kasuan ere gehiengoa 16 eta 65 urte bitartean kokatzen da, baina kasu guztietan populazioaren laurdena 65 urte baino gehiagokoen artean aurkitzen dira, atzerritarren kasuan tasa hori hutsala den bitartean. Datu hauek eragin zuzena daukate etorkizuneko Ongizate Estatuaren mantenuan, ezin utzi aipatzeke azken urteetan pentsioen inguruan gori-gorian dagoen auzia.

³EINK 2018rako eskaintzen dituen datuak erabiltzen baditugu, Arrasateko biztanleria osoa kontutan hartuta batez besteko adina 46 urtetan kokatzen da. Datu horren baitan daude atzerritarrak ere —berez askoz gazteagoak direnak—, horiek kenduta, bertakoen batez besteko adina are altuagoa litzake, beraz.

Sexua


Arrasateko biztanleria atzerritarren sexuaren arabera banaketari begiratzen badiogu —6. taula—, orokorrean emakumezkoak gizonazkoak baino apur bat gehiago direla ohartzen gara, nahiz eta kopuruak elkarrengandik oso gertu dauden.

6. taula. Arrasateko populazio atzerritarra sexuaren arabera. 2019⁴

| KONTINENTEAK | Emakumeak | Gizonak | GUZTIRA |
|--------------|-----------|---------|---------|
| EUROPA | 98 | 109 | 207 |
| AFRIKA | 247 | 265 | 512 |
| AMERIKA | 364 | 209 | 573 |
| ASIA | 116 | 187 | 303 |
| OZEANIA | 2 | 2 | 4 |
| GUZTIRA | 827 | 772 | 1.599 |

Iturria: Arrasateko Udala.

19. grafikoa. Arrasateko pertsona atzerritarrek kontinente eta sexuaren arabera (%). 2019



Iturria: Egileak eginak Arrasateko Udaleko datuetatik abiatuta.

Jatorri-zonalde edo kontinente desberdinak kontuan hartzen baditugu, ezberdintasunak nabarmentzen dira ordea —19. grafikoa—. Europar eta afrikarren artean proportzioak parekatuak dira, baita Ozeaniako kasuan ere —soilik 4 pertsona daude, 2 emakume eta 2 gizon—. Desorekak latinoamerikarren eta asiarren artean aurkitzen ditugu. Lehendabizikoen artean gehiengo emakumeak dira (% 63,5)⁵, eta horrek badu bere logika, izan ere, latinoamerikarren baitan oso ohikoa den perfla zaintzara dedikatzen diren emakumeena da. Asiarren kasuan berriz alderantziz gertatzen da, gehiengo gizonak dira (% 61,7). Beraien agerpenetik, Magreb zein Asiako —Pakistan— jatorriak


⁴Sexuari buruzko datuak aztertzerakoan nazionalitate atzerritarrek hartu dira kontuan, datu berriagoak direlako, Arrasateko udalak ahalbidetutako 2019koak. Dena den, kontuan izan behar da honek emakume latinoamerikarren kasuan nahastea eragin dezakeela, lehenago iritsi zirelako eta nazionalitate espainiarra lortu, atzerritarren estatistiketatik at geratuz.

⁵Eta atzerrian jaiotako datua kontuan hartuko balitz gehiago, izan ere emakume latinoamerikar ugariak jadanik espainiar nazionalitatea dute.

ezaugarritu dituen bereizgarria izan da bakarrik emigratu duten gizonezkoek eratuta egotea; gero, apurka, familia berriz elkartzeak burutuz joan dira. Dena den, badirudi pakistandarren kasuan prozesu hori makalago doala, iritsi ere apur bat beranduago egin baitira.

Oro har, nagusitzen den patroia hasiera batean sexu bat gailentzea da, eta egonkortze prozesuen ondorioz apurka sexuen arteko oreka gertatzea. Hori da, adibidez, EAEn populazio latinoamerikarrarekin gertatu den prozesua: hasieran emakumeak ziren gehiengoa oso era nabarmenean, baina gaur egun, gehien bat urte asko daramaten jatorrietan, orekatuagoak daude gizon eta emakumeen arteko ehunekoak. Antzeko zerbait ikusten da Arrasateko kasuan, Amerikakoen —Latinoamerika— eta Asiakoek —Pakistan— kasua salbuetsita, gainontzeko jatorrien artean ez dira sexu desberdintasun nabarmenak antzematen.

20. grafikoa. Arrasateko atzerritarren sexuaren arabeko bilakaera (%). 2002-2018



Iturria: Egileak egina EINEko datuetatik abiatuta.

Azkenik, eta 20. grafikoari erreparatzen badiogu, ikusten da emakume eta gizon atzerritarren arteko proportzioa beti oso antzekoa izan dela Arrasaten. Dena den, hasieran gizonak apur bat gehiago baziren, gaur egun emakumeak gailentzen dira. Honen arrazoia bi faktoretan egon daiteke:

1. 13. grafikoan ikusi da fenomenoaren hasieratan Europa eta Latinoamerika zirela jatorri nagusiak. Bi jatorri horien baitan emakumeen presentzia handiagoa izan da hasieratik —latinoamerikarren baitan, batik bat—, zaintza edota garbiketa lanei lotuta egon baita horien etorrera. Aitzitik, horiek espainiar nazionalitatea lortzeko denbora gutxien behar duten jatorriak dira, beraz baliteke nazionalitateei dagozkien datuetatik at geratu izana azkar batean. Eta hain zuzen, aurkezten diren adinei buruzko datuak atzerritartasuna hartzen dute kontuan, ez jatorria.
2. Bigarren arrazoia gainerako jatorrietan aurkitu liteke —Afrika eta Asia—. Horiek, denboran aurrera egin ahala gero eta esanguratsuagoak bihurtu dira, eta horien baitan gizonak izan dira nagusi. Magrebtarrek, Saharaz hegoaldeko afrikarrek eta asiarrak —hots, pakistandarrak— ordea prozesu luzeak igaro behar dituzte

espainiar nazionalitatea lortzeko, beraz atzerritar gisa ageri zaizkigu. Aipatu bezala, jatorri hauen baitan ohiko joera izan da lehenik senarrak ekitea emigrazio prozesuari eta gero emaztea eta haurrak bertaratzea —edo haurrak bertan izatea—. Horrek azaldu lezake azken urteetan emakumeen proportzioa gizonena baino handiagoa izatea; urte horietan erdialdeko eta hegoaldeko Amerikatik etorritakoek erakutsitako gorakada itzelarekin batera, zeintzuen baitan gehiengoa emakumeak izan ohi diren.



3

Gizarteratze eremuak

Egoera administratiboa (egoitza baimenak)

Populazio atzerritarrentzat egoitza-baimena izateak berebiziko garrantzia du gizarteratze prozesuetan. Alde batetik, maila legalean, Espainian egoera erregularrean egoteko aukera ematen die; eta bestetik, gizarteratzearen arlo materialari erreparatuta, lan-kontratua edukitzea ahalbidetzen die —beti ere egoitza-baimen horrek lan-baimena ere badakar— eta baita Gizarte Segurantzari kotizatzearen aukera ere —eta horri loturiko gizarte-eskubideak jasotzekoa—.

Ezinezkoa da Arrasaten bizi den populazio atzerritarren egoitza-baimenei buruzko datu zehatzak eskaintzea, eskuragarri dauden datu desagregatuenak probintzia mailakoak baitira. Dena den, pentsatzekoa da EAeko datuak ez direla izango Arrasatekoak baino askoz ezberdinagoak. Hurrengo 21. grafikoan EAeko datuak ikusi ditzakegu. Bertan, erroldatutako populazio atzerritarra eta esleitutako egoitza-baimen kopuruak harremanetan jartzen dira, horren bidez egoitza-baimenik gabe —egoera irregularrean— daudenen estimazioa egin daitekeelarik.


Grafikoa ikusita, EAeren kasuan fase ezberdinak egon direla nabarmentzen da, migrazio fluxuen epealdiak lotuta:

1. Lehendabiziko fasea (1998-2000): Populazio atzerritarren buruzko lehenengo fluxuak ematen hasten dira, hauek oso txikiak izanik. Grafikoan ikusi daitekeen moduan erroldatuta daudenen eta egoitza-baimena dutenen arteko erlazioa oso estua da eta % 100etik gora kokatzen da, alegia, egoitza-baimen gehiago daude erroldatutako populazio atzerritarra baino.
2. Bigarren fasea (2000-2006): Fase honek bat egiten du hazkunde ekonomikoarekin. Fluxuak oso handiak dira eta EAEn bizi diren atzerritar gehienak iritsi berriak.

Horren ondorioz, egoitza-baimenik gabe —paperik gabe— daudenen kopurua asko hazten da. 2003 eta 2004. urteetan, esaterako, atzerritar gehiago daude egoitza-baimenik gabe egoitza-baimenarekin baino —datuak % 50etik beherakoak dira—.

3. Hirugarren fasea (2007-2016): Fase honen hasierak egoitza-baimenik gabe dauden pertsonekin egindako ez-ohiko erregularizazio prozesuarekin bat egiten du. Grafikoan ikusi daitekeen moduan, 2006. urtetik 2007ra egoitza baimenen tasa % 51tik % 67,1era igarotzen da. Ondorengo bi urteetan ere hazkunde nahiko nabarmena ematen da, nagusiki Bulgaria eta Errumania Europar Batasuneko kide izatera pasatzen direlako. 2008. urtetik aurrera, krisiarekin bat egiten duten urteetan hain zuzen ere, ehunekoek gora egiten dute etengabe. Gehien bat gizarte-erroketa figuraren bidez lortuko dute atzerritarrek garai honetan egoitza-baimena.
4. Laugarren fasea (2016-2018): Azken fase honetan egoitza-baimenen tasak behera egiten du, 2018. urterako % 86,1ekoa delarik. Dena den, altua izaten jarraitzen du. Erorketa hau ulertzeko azken 2-3 urteetan eman diren migrazio fluxuak kontutan hartu behar dira. Fluxu horien hazkunde nabaria eman da eta horrenbestez gero eta jende gehiago dago iritsi berria, eta beraz, egoitza-baimenik gabe. Aurreko fasean, esaterako —krisiarekin bat egin zuena—, iritsierak asko murriztu ziren eta jada hemen zeudenak egoitza-baimena lortzeko aukera izan zuten. Espainian daramaten denbora oso garrantzitsua da egoitza baimena lortzeko eskakizunak bete ahal izateko eta gehienetan denbora gutxi daramatenak —azken urtea hauetan dezente dira iritsi berriak— egoitza-baimenik gabe aurkitzen dira.

21. grafikoa. *Populazio atzerritarren egoitza-baimena tasaren bilakaera EAEn, 1998-2018*



Iturria: Egileak egin a EIn eta Enplegu eta Gizarte Gaietarako Ministeriooko datuetatik abiatuta.

Arestian aipatu dugun bezala, Arrasaten bizi den populazio atzerritarren egoitza-baimenen inguruko informazio zehatzik ez dago eskuragarri. Dena den, nolabaiteko estimazioa egin daiteke kontuan harturik zein den atzerritar hauen barne-osaketa eta jatorria. Jatorriaren arabera erregularizazio tasa ezberdinak ematen dira. Hortaz, Arrasaten dauden jatorri ezberdinetako pertsonen kopuruak kontuan harturik eta jatorri horiek EAEn duten erregularizazio-tasa aplikatuz, nolabaiteko estrapolazioa egin daiteke. Eragiketa estatistiko honek dituen mugak kontuan hartu behar dira

eta tentuz jokatu behar da interpretazioak egiterako momentuan, baina era berean errealitatera hobeto gerturatzeko tresna izan daiteke.

Hala nola, jatorri batzuetan tasa hau % 100etik gora kokatzen da, horrelako daturik printzipioz ezinezkoa denean. Hau bi erregistro ezberdin erabiltzen ditugulako gertatzen da, hots, errolda eta egoitza baimena, eta bakoitzak bere ezaugarriak dituelako. Egoitza-baimenen kasuan zenbaitetan bajak ez dira era azkar batean erregistratzen —joan egin direlako, espainiar nazionalitatea lortu delako, etab.— eta honek egoitza-baimenen datuetan eragina du, errealitatean dagoen zifra puztu egiten delarik eta erroldaren gainetik kokatzen delako.

Arrasateko estimazioa egiteko —7. taula—, % 100 baino gorago kokatzen diren jatorriak % 100ean utzi dira, desoreka estatistikoak ekidin ahal izateko. Era berean, Sahara eta Palestinako datuak ezin izan dira estimatu, errolda ofizialean jasotzen ez direlako.

7. taula. Arrasateko populazio atzerritarraren egoitza baimenen kopuruen estimazioa jatorriaren arabera. 2017

| | Kopurua Arrasate | Estimazioa Arrasate | Estimazioa EAE |
|-----------------------|---------------------|------------------------|----------------|
| MAROKO | 291 | 214 | 73,6 |
| PAKISTAN | 215 | 164 | 76,5 |
| KOLONBIA | 169 | 114 | 67,7 |
| HONDURAS | 122 | 52 | 42,2 |
| ALJERIA | 88 | 63 | 71,8 |
| PORTUGAL | 87 | 87 | 171,3 |
| SAHARA | 60 | — | — |
| NIKARAGUA | 54 | 25 | 47,0 |
| BOLIVIA | 46 | 38 | 82,2 |
| TXINA | 42 | 42 | 104,0 |
| VENEZUELA | 38 | 17 | 43,6 |
| DOMINIKAR ERREPUBLIKA | 34 | 27 | 79,6 |
| MAURITANIA | 28 | 21 | 74,9 |
| BRASIL | 25 | 18 | 71,0 |
| ERRUMANIA | 24 | 24 | 132,7 |
| BRITAINIA HANDIA | 18 | 18 | 132,2 |
| EKUADOR | 18 | 18 | 111,2 |
| NEPAL | 18 | 12 | 64,1 |
| BULGARIA | 13 | 13 | 145,5 |
| POLONIA | 12 | 12 | 183,4 |
| KUBA | 12 | 10 | 83,5 |
| PERU | 12 | 10 | 82,4 |
| FRANTZIA | 11 | 11 | 137,0 |
| ITALIA | 9 | 9 | 129,1 |
| KONGO | 9 | 3 | 35,7 |
| BOLI KOSTA | 8 | 5 | 60,4 |

| | Kopurua Arrasate | Estimazioa Arrasate | Estimazioa EAE |
|--|---------------------|------------------------|----------------|
| ESTATU BATUAK | 8 | 6 | 79,4 |
| MEXIKO | 8 | 6 | 78,1 |
| PARAGUAI | 8 | 5 | 60,6 |
| INDIA | 8 | 7 | 84,1 |
| SENEGAL | 7 | 5 | 74,2 |
| SIRIA | 7 | 1 | 16,1 |
| HERBEHEREAK | 6 | 6 | 130,4 |
| ALEMANIA | 6 | 6 | 140,8 |
| TXILE | 6 | 4 | 68,1 |
| NIGERIA | 5 | 2 | 45,8 |
| PALESTINA | 5 | — | — |
| EKUATORE GINEA | 4 | 2 | 56,2 |
| GUATEMALA | 4 | 1 | 27,2 |
| AUSTRALIA | 4 | 3 | 83,5 |
| IRLANDA | 3 | 3 | 122,7 |
| UKRAINA | 3 | 2 | 72,0 |
| GEORGIA | 3 | 1 | 21,7 |
| GUINEA | 3 | 2 | 69,8 |
| URUGUAI | 3 | 2 | 78,6 |
| GREZIA | 2 | 2 | 169,4 |
| SUEDIA | 2 | 2 | 177,3 |
| TXEKIAR ERREPUBLIKA | 2 | 2 | 171,4 |
| ERRUSIA | 2 | 2 | 84,3 |
| LIBERIA | 2 | 0 | 17,5 |
| AFRIKA ERDIKO ERREPUBLIKA | 2 | 0 | 17,5 |
| KONGOKO ERREPUBLIKA DEMOKRATIKOA | 2 | 2 | 105,4 |
| EL SALVADOR | 2 | 1 | 34,8 |
| ARGENTINA | 2 | 2 | 79,7 |
| TAILANDIA | 2 | 2 | 94,2 |
| TURKIA | 2 | 2 | 96,9 |
| BELGIKA | 1 | 1 | 135,5 |
| LETONIA | 1 | 1 | 135,4 |
| BOSNIA-HERZEGOVINA | 1 | 1 | 105,0 |
| KROAZIA | 1 | 1 | 102,7 |
| GHANA | 1 | 1 | 78,8 |
| NIGER | 1 | 0 | 17,5 |
| UGANDA | 1 | 0 | 17,5 |
| COSTA RICA | 1 | 0 | 39,8 |
| HAITI | 1 | 1 | 650,0 |
| INDONESIA | 1 | 1 | 77,8 |
| IRAN | 1 | 1 | 62,5 |
| JAPONIA | 1 | 1 | 100,0 |
| AZERBAIJAN | 1 | 0 | 5,2 |
| GUZTIRA (Sahara eta Palestina kenduta) | 1.534 | 1.118 | 72,9 |

Iturria: Egileak egina EIN eta Enplegu eta Gizarte Gaietarako Ministerioko datuetatik abiatuta.

Egindako estropolazioaren arabera Arrasateko erregularizazio tasa % 72,9koa izango litzateke, EAeko baxuagoa (% 86,3). Arrasateko atzerritarren kopuru esanguratsu bat azken urteetan iritsi da eta horrek erregularizazio tasa txikiagoa izatea bultzatzen du. Era berean, gurean denbora dezente daramaten jatorriek (Europar Batasuna eta Latinoamerikako batzuk), ez dute Arrasaten EAEn bezainbesteko pisurik.

Langabezia eta lan eskatzaileak

Enpleguak pertsona guztien integrazioan duen garrantzia agerikoa da, are gehiago migratzaileentzat, enplegua izaten baita euren proiektuaren ardatza eta muina. Azken urteetan krisi ekonomikoaren hedapenarekin batera langabeziaren hazkundera eman da bai bertako populazioarentzat zein etorkinentzat. Dena den, bigarren taldearentzat gertaera horren inpaktua are nabarmenagoa izan da, eta langabeziak erabateko ondorio ezkorrak izan ditu etorkinen gizarteratze prozesuaren baitan.

EAeko kasuan, adibidez, Eusko Jaurlaritzak jatorri atzerritarreko populazioari egindako inkestako datuek agertzen dutenez, langabezia tasa 2010. urtean % 26,7 izatetik 2014an % 32,4 izatera pasatzen da. Igoera honek argi uzten du aipatu berri den errealitatea eta, era berean, bertako populazioa baino langabezi tasa handiagoa pairatzen dutela jatorri atzerritarra duten pertsonak, bai krisiaren aurretik eta baita ondoren ere.

Arrasateko kasuan, Lanbideak langabezian dauden lan-eskatzaileei buruz eskaintzen dituen datuak aztertzen baditugu —22. grafikoa—, 1.071 pertsona daude langabezian eta lan-eskatzaile moduan, horien % 76,7ak (821 pertsona) bertako jatorria du eta % 23,3ak (250) atzerritarra.

22. grafikoa. Arrasateko langabezian dauden lan-eskatzaileak jatorriaren arabera. 2019ko maiatza




Iturria: Egileak egin Lanbideko datuetatik abiatuta.

Datu hauek populazio bakoitzak herrian duen ehunekoarekin erkatzen badugu —bertako populazioa % 90,7 inguru eta jatorri atzerritarra dutenak % 9,3—, argi ikusten da jatorri atzerritarra duten pertsonak gehiago pairatzen dutela langabezia egoera bertakoek baino. Aldagai hau gizarte-zaurgarritasunaren adierazle bezala

hartu dezakegu eta talde honek bertakoek baino egoera txarragoa islatzen duela baieztatu dezakegu.

23. grafikoa. Arrasateko langabezian dauden lan-eskatzailleak jatorria eta sexuaren arabera (%). 2019ko maiatza



Iturria: Egileak egina Lanbideko datuetatik abiatuta.

Sexua kontuan hartzen bada —23. grafikoa—, ezberdintasun batzuk azpimarratu daitezke jatorriaren arabera, baina ez dira esanguratsuegiak. Bertako zein kanpoko jatorria dutenen artean gehiago dira emakumeak langabezian eta lan bila aurkitzen direnak, % 54,8 lehenengoen kasuan eta % 62 bigarrean. Dena den, nabarmena da emakume atzerritarren ehunekoa handiagoa dela eta honek lan-merkatutzeko arazo gehiago dituztela islatzen du.

8. taula. Arrasateko langabezian dauden pertsona atzerritar lan-eskatzailleak jatorri ezberdin eta sexuaren arabera. 2019ko maiatza

| | Guztira | % Guztira | Gizonak | Emakumeak | % Emakum. |
|---------------------------|---------|-----------|---------|-----------|-----------|
| Europar Batasuna | 17 | 6,8 | 7 | 10 | 58,8 |
| Gainontzeko Europa | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,0 |
| Ipar Afrika | 149 | 59,6 | 54 | 95 | 63,8 |
| Saharaz hegoaldeko Afrika | 6 | 2,4 | 5 | 1 | 16,7 |
| Latinoamerika | 33 | 13,2 | 10 | 23 | 69,7 |
| Ipar Amerika | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,0 |
| Txina | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,0 |
| Gainontzeko Asia | 32 | 12,8 | 16 | 16 | 50,0 |
| Apatrida | 13 | 5,2 | 3 | 10 | 76,9 |
| Gainontzeko mundua | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,0 |
| Guztira | 250 | 100 | 95 | 155 | 62,0 |

Iturria: Egileak egina Lanbideko datuetatik abiatuta.

Langabezia datuak jatorrien arabera lantzen baditugu —8. taula—, langabetu gehiena Ipar Afrikakoan baitan agertzen zaizkigu (% 59,6). Esan daiteke beraz, Arrasateko herrian hauek direla lan-merkatutzeko zailtasun gehien dituztenak, horien artean emakumeen kopurua bikoitza delarik. Datu hau ez da harritzekoa, izan ere jatorri magrebtarra duten pertsonak dira EAEn gizarte-zaugarritasun gehiena piratzen dutenak eta langabezia tasa altuenak jasaten dituztenak.

Hauen atzetik, baina askoz ere ehuneko txikiagorekin, latinoamerikarrak (% 13,2), gainontzeko Afrika (% 12,8) eta Europar Batasuneko populazioa (% 6,8) kokatzen dira. Esanguratsua da, bitxikeria bezala bederen, apatriden kopurua Arrasaten esanguratsua dela (% 5,2), EAEn talde hau oso txikia izanik. Pentsatu daiteke Saharako populazioak Arrasaten duen pisuak azaldu dezakeela datu hau.

Jatorriaren arabera, eta sexua kontutan harturik, Arrasateko langabezia datuek emakumeen atzerritarrek bizi duten egoera latza irudikatzen dute. Horiek presentzia esanguratsua erakusten dute langabezia datuetan, populazio atzerritarren baitan erakusten duten pisua gizonezkoen antzekoa den bitartean. Langabezian dauden eta lan-eskatzaileak diren jatorri atzerritarra duten pertsonen artean % 62a suposatzen dute emakumeek, biztanleria atzerritarren baitan erakusten duten zenbatekoa berriz dezentez txikiagoa da, % 51,7koa hain zuzen. Magrebtarren artean % 63,8 osatzen dute, aldiz afrikarren artean erakusten duten pisua % 48,2koa; eta gainontzeko Asiaren baitan —Pakistan jatorri nagusia izanik— % 50a, asiarren artean % 38,3 diren bitartean.


Hezkuntza

Askotan aipatzen da enplegua integraziorako ardatza dela jatorri atzerritarra duten pertsonentzat, eta hezkuntza eta giza-kapitala bihurtzen direla hauen seme-alabentzako oinarria enplegu hobeago bat eta goranzko gizarte-mugikortasuna lortzeko. Hori dela eta, hezkuntzak berebiziko garrantzia hartu du azken urteetan jatorri atzerritarra duten pertsonen gizarteratzea aztertzerakoan eta EAEn zalaparta piztu duen gaia da, gehien bat ikastetxeetan jatorri atzerritarra duen ikasleen matrikulazio eta kopuru ezberdinak direla eta.

Atal honetan, lehenik eta behin, EAeko datu batzuk aztertuko dira, hauen bidez argazki orokor bat lortu ahal izateko. Datu gaurkotuenak Eusko Jaurlaritzak 2018an plazaratutako txosten batekoak dira, gehienetan 2017-2018 ikasturteko datuak eskaintzen direlarik. Jarraian Arrasateko udalak eskainitako datuen bidez herriko errealitate zehatza ikertuko dugu, 2016tik gaur egunera bitarteko atzerritar ikaslegoaren ehunekoak landuz.

24. grafikoan ikusi daitekeen moduan, jatorri atzerritarra duen ikasleriaren pisua asko aldatzen da eremu edo lurralde historikoaren arabera. Horrela bada, Gipuzkoan eta Bizkaian ehunekoak ez dira oso altuak, 20tik behera gehienetan, eta soilik herri bakan batzuetan jasotzen dira ehuneko altuagoak. Araban aldiz, egoera ezberdina da eta ehuneko altuak ageriagoak dira —20 edo 30etik gorakoak—. Arabar Errioxan, esaterako, herri batzuetan jatorri atzerritarra duen ikasleria guztien % 30-40 suposatzen du. Arrasateko herriari begiratzen badiogu kolore berde argian kokatzen dela ikus dezakegu, Lehen Hezkuntzan jatorri atzerritarreko ikasleria % 10 eta % 19,9 bitartean ageri zaigularik.

24. grafikoa. Jatorri atzerritarra duen ikasleria EAEko Lehen Hezkuntzan (%). 2017-2018 ikasturtea



Iturria: Eusko Jaurlaritza.

25. grafikoak erakusten duen lez, jatorri atzerritarra duen ikasleriaren —atzerritarrak, jatorri atzerritarrekoak edota gurasoak atzerritarrak diren umeak— pisua oso ezberdina da eskola-sarearen arabera EAEn. Sare publikoan ikasleria atzerritarraren presentzia % 22,8koa den bitartean, kontzertatuan % 9,6a soilik dira. Datu hauek argi erakusten dute bi sare hauen artean dagoen desoreka eta publikoa dela jatorri atzerritarra duen ikasleria gehien hartzen duena, batik bat Lehen Hezkuntzan.


25. grafikoa. Jatorri atzerritarra duen ikasleria EAEko Lehen hezkuntzan eskola-sarearen arabera (%). 2017-2018 ikasturtea



Iturria: Egileak eginia Eusko Jaurlaritzako datuetatik abiatuta.

26. grafikoan Lehen Hezkuntzaren baitan hizkuntza ereduaren arabera matrikulazioa kontutan hartzen da, jatorriaren arabera egon daitezkeen ezberdintasunak aztertuz. Ikusi daitezkeen moduan, oso txikiak dira bertako eta atzerritar jatorria duen ikasleriaren arteko ezberdintasunak eta, eredu nagusia D da, bai bertako jatorria dutenentzat (% 73,1) eta bai jatorri atzerritarra dutenentzat (% 71,2).

26. grafikoa. Jatorri atzerritarra duen ikasleria EAeko Lehen Hezkuntzan hizkuntza ereduaren arabera (%). 2017-2018 ikasturtea




Iturria: Egileak egina Eusko Jaurlaritzako datuetatik abiatuta.

Orain dela urte batzuk edo gaur egun baina adin jakin batekin iristen direnentzat —Bigarren Hezkuntza—, akaso, beste ereduak indar gehiago izan dezakete; baina Lehen Hezkuntzan ezberdintasunak oso txikiak dira.

Bukatzeko Arrasateko datu batzuk aurkeztuko ditugu. Lehendabizikoak, eta Arrasate EAeko beste herri batzuekin konparatzeko aukera ematen digutenak, Euskadiko Eskola Kontseiluak eskainitakoak dira, baina esan beharra dago soilik atzerritarra den ikasleria kontutan hartzen duela, beraz ez ditu barne-biltzen jada espainiar nazionalitatea lortu dutenak edota guraso atzerritarrak dituztenak. Era berean, datuak 2014-2015. ikasturtekoak dira, hortaz, datu hauek errealitatearen nondik norakoa ezagutzeko baliagarriak badira ere, tentuz erabili beharrekoak dira.

27. grafikoa. Ikasleria atzerritarraren ehunekoa zenbait Eskola Guneetan eta hiriburuetan (%). 2014-2015




Iturria: Egileak egina Euskadiko Eskola Kontseiluaren datuetatik abiatuta.

Ikusi daitekeen moduan, Arrasatek duen ikasleria atzerritarraren ehunekoak ez da oso altua (% 6,8) eta EAEn bataz bestetik (% 6,6) oso gertu kokatzen da. Dena den, berriro azpimarratu behar da datu hauek zaharkituak daudela eta mugatuak direla eta, hortaz, Arrasateko eskolen errealitatea ondo ezagutzeko grafiko honek hutsune nabariak erakusten dituela.

Hutsune horiek gainditzeko asmoz, jarraian Arrasateko udalak ahalbidetutako datuak aztertuko ditugu. 28. grafikoan ikasle migranteek azken ikasturteetan erakutsitako pisua ikus dezakegu. 2016-17 ikasturteetik ehunekoak goruntz egin du, azken ikasturtean —2019ko azarora arte— mantendu egin den bitartean, % 14,1ean kokatzen delarik. Beraz, EAEn datutik gertu kokatuko litzateke —2017-18 ikasturtean % 16,2—.


28. grafikoa. *Ikasle migratzaileen bilakaera (%). 2016-2019*



Iturria: Egileak egin Arrasateko udalaren datuetatik abiatuta.

Eskola sarearen arabera bereizketa egiten badugu, EAEn kasuan ikusten zen moduan Arrasaten ere ikasle migratzaileek eskola publikoan eta kontzertatuan duten pisua desberdina dela behatu dezakegu, publikoan erakusten duten pisua dezentez handiagoa delarik —29. grafikoa—. Dena den, badirudi azken urteetan eskola publikoan horien pisua jaisten ari dela, ikastola kontzertatuan apur bat igoz doan bitartean.


29. grafikoa. *Ikasle migratzaileen pisua eskola publiko eta kontzertatuan (%). 2016-2019*



Iturria: Egileak egin Arrasateko udalaren datuetatik abiatuta.

Alabaina, hezkuntza faseak bereizten baditugu, desberdintasunak nabarmentzen dira. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzan itzelekoa da sare publiko eta pribatuaren artean agertzen zaigun aldea ikasle atzerritarren ehunekoetan. Eskola publikoan datua % 35aren bueltan kokatzen den bitartean, pribatuan % 7aren ingurukoa da, 5 aldiz txikiagoa beraz. Aldiz DBHn parekatu egiten dira datu horiek, eta azken ikasturtean errealitateak buelta ematen du, izan ere, —nahiz eta azarorarteko datua soilik dugun esku artean— sare pribatuan pisu gehiago erakusten dute ikasle atzerritarrek (% 13,2) publikoan baino (% 10,8). Antzeko joera nabarmentzen da batxilergoan, datuak parekatuagoak dira eta azken ikasturtean ikastola kontzertatua pisu nabarmenagoa dute migratzaileek eskola publikoan baino —% 1,8 eta %1,2 hurrenez hurren—.

30. grafikoa. *Ikasle migratzaileen pisua eskola publiko eta kontzertatua hezkuntza faseen arabera (HH+LH, DBH, Batxilergoa) (%). 2016-2019*



Iturria: Egileak egin Arrasateko udalaren datuetatik abiatuta.

Horrela bada, argi geratzen da HH eta LH mailetan beharrezkoa dela ikasle migratzaileen banaketa orekatuago bat bermatzeko lan egiten jarraitzea. Bestalde, datu hauetatik atera daitekeen beste ondorio bat izan daiteke sare publikora sartzen diren ikasle migratzaileen artetik gutxi iristen direla ikasketa maila altuetara, sare pribatuan sartzen direnen kasuan proportzioa askoz handiagoa den bitartean. Dena den, azken urteetako tendentzia ikusita badirudi publikoko batzuk sare pribaturako saltoa ere eman ahal izan dutela DBH edota batxilergoa egiteko.

Osasuna eta osasun arreta

Enplegua edo hezkuntzarekin gertatzen den moduan, osasuna eta osasun arreta ere oinarritzko elementuak dira pertsonen ongizatea eta integrazioa bermatzeko. EAerako ditugun datuak kontuan hartzen baditugu, jatorri atzerritarreko pertsonen osasun egoera bertakoena baino hobea dela ohartzen gara, ez jatorri atzerritarra izateagatik, baizik eta bertako populazioa baino askoz gazteagoak direlako —atal soziodemografikoaren baitan perfilak aztertzerakoan adinari dagokion 17. grafikoan ikusi den modura—. Adin bereko baina jatorri ezberdineko taldeen osasun egoera aztertu denean ere ez da ezberdintasun nabarmenik antzeman.

Baieztapen hauek lehen aipatutako jatorri atzerritarreko populazioari egindako Eusko Jaurlaritzaren inkestan frogatu daitezke. 2014. urteko datuen arabera, EAEn bizi diren jatorri atzerritarra duten pertsonen % 47,3k osasun egoeraren pertzepzio oso ona du, % 40,2k ona, % 9,7k erdizkako, % 2,2k txarra eta soilik % 0,6k du bere osasun egoeraren inguruko pertzepzio oso txarra.

Dena den, osasun egoera aztertzerakoan ezin dugu ahaztu klase sozialak duen eragina. Gizarte-egituran zenbat eta beherago egon, orduan eta osasun egoera txarragoa; eta alderantziz, zenbat eta gorago, gero eta hobea. Jada ikusi ditugun hainbat adierazle kontuan hartzen baditugu eta jatorri atzerritarra duten pertsonen zati esanguratsu baten gizarte-kokapena beheko mailetan dagoela jakinda, pentsa daiteke hauen osasun egoera proportzioan txarragoa izango dela edota txarrera joko duela ondorengo urteetan, bai EAEn eta baita Arrasaten bertan ere.

Osasun arretari begira, unibertsaltasunaren printzipioa nagusitzen den arren, populazio atzerritarrentzat hainbat muga daude arreta horretarako sarbidean EAEn, nagusiki iritsi berriak direnentzako. Egoitza-baimena edukitzea ez da baldintza nahikoa —azken hilabetetan hartutako erabakien arabera, ezta Estatuan ere—, hiru hilabeteko errolda eskatzen da osasun-txartela eskatu ahal izateko. Eskakizun horrek arazoak dakartza iritsi berrientzat edota erroldatzeko arazoak dituztenentzat eta, hauek dira bereziki gizarte-bazterketa egoera larrienak pairatzen dituztenak, batik bat bigarren taldekoak.

Pobrezia eta diru-laguntzak


Gizarteratze eremuen atal honekin bukatzeko pobrezia eta gizarte bazterkeriari buruzko hainbat datu landuko dira. Horri aurre egiteko EAEn daukagun neurri garrantzitsuena Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta⁶ —DBE— dela kontuan hartuz, nagusiki horri buruzko datuak aztertuko dira atal honetan. Alabaina, laguntza hori eskuratu ahal izateko ezartzen diren baldintzak direla eta, populazio osoak ez du horietara sarbiderik, eta halako kasuetarako Gizarte Larrialdietarako Laguntzak —GLL— ditugu. Laguntza horien erabileraren inguruko datuak ere aztergai izango dira.

Atal honetan landutako beste hainbat gaietan bezala, Arrasaterako pobreziaari buruzko datu zehatzik ez dago eskuragarri, horrenbestez EAEkoak izango dira hizpide. Dena den, aipaturiko prestazio ekonomikoei dagozkionak —DBE eta GLL— baditugu Arrasaterako eta, beraz, horiek lantzea interesgarria izango da; lehenik eta behin pobreziaari aurre egiteko dauden neurrien inguruko informazioa lortuko delako, eta bigarrenik, zeharka baldin bada ere, pobreziaari buruzko informazioa ere landu ahal izango delako horien bidez.

Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE)

Lanbideek eskaintzen dituen azken datuen arabera —txosten hau egiterako orduan berrienak direnak— Arrasaten 440 bizikidetz-unitatek jasotzen dute Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta 2019. urteko maiatzean, horietatik 198k bertako jatorria dute eta 242k atzerritarra.

31. grafikoa. Atzerrian eta bertan jaiotako DBEren erabiltzaileak EAEn eta Arrasaten (%). 2019ko maiatza




Iturria: Egileak egina Lanbideko datuetatik abiatuta.

⁶Oinarrizko beharrak asetzeko baliabide ekonomikorik ez duten edo baliabide ekonomiko nahikorik ez duten eta baldintza jakin batzuk —besteak beste 3 urteko errolda— betetzen dituzten pertsonentzat da, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen bidez arautua dagoena.

Ehunekoei erreparatzen badiegu —31. grafikoa—, Arrasateko DBEren erabiltzaileen artean % 55k jatorri atzerritarra du eta % 45k bertakoa. Horrela izanik, jatorri atzerritarra duten bizikidetzta-unitateak dira nagusi DBE jasotzen dutenen artean Arrasaten. EAEn datuak, aldiz, erabat ezberdinak dira eta bertakoak dira nagusi, oso era nabarmenean gainera (% 60,5 atzerritarren % 39,5aren aurrean).

Datu hauek, zeharka bada ere, Arrasaten bertako populazioaren egoera sozioekonomikoa EAE mailan baino hobea dela erakusten digute eta, hori dela eta, atzerritarrek ehuneko handiagoa suposatzen dute prestazio horren jasotzaileen artean. Era berean, jatorri atzerritarra dutenen zaugarritasunari buruz hitz egiten digute datuek. Izan ere, Arrasateko erroldan % 9,3 soilik baldin badira ere, DBE jasotzen dutenen artean % 55 dira.

32. grafikoa. Atzerrian eta bertan jaiotako DBEren erabiltzaileak Arrasaten sexuaren arabera (%). 2019ko maiatza




Iturria: Egileak egina Lanbideko datuetatik abiatuta.

Jatorria eta sexua kontutan hartzen baditugu, ezberdintasun esanguratsuak aurkitzen ditugu Arrasaten DBE jasotzaileen baitan. Bertako jatorria dutenen artean emakumeak nagustizen dira erabiltzaileen artean, guztien % 61,6 suposatzen dutelarik. Atzerrian jaiotakoaren artean, aldiz, gizonezkoak dira nagusi, % 52,5 hain zuzen.

Datu hauek ikusita badirudi lehen begirada batean bertakoaren artean emakumeek gizarte-zaugarritasun gehiago pairatzen duten bitartean, atzerritar jatorria dutenen artean gizonezkoak direla egoera okerragoan daudenak eta DBE gehiago behar dutenak. Dena den, hau estimazio bat besterik ez da, eta gogoratu beharrekoa da enpleguari dagokion atalean langabeziak gehien eragiten dietenak emakumezkoak direla agertu dela. Beraz, aurreko baieztapena kolokan geldituko litzateke. Zentzu horretan, aintzat hartzekoa da balitekeela hainbat emakumek DBE jasotzeko baldintzak —3 urteko errolda EAEn— ez betetzea; kontutan izan behar da baita ere askotan familien kasuan gizonen izenean tramitatzen direla laguntzak, kasu horretan emakumea inbisibilizatuta legoke.

33. grafikoa. Atzerrian jaiotako DBEren erabiltzaileak EAEn eta Arrasaten jatorriaren arabera (%). 2019ko maiatza




Iturria: Egileak egina Lanbideko datuetatik abiatuta.

DBE jasotzen duten bizikidetz-unitateen atzerritarren jatorriari erreparatzen badiogu, EAE eta Arrasateren artean ezberdintasun handiak nabarmentzen dira. Pentsa daitekeen bezala, leku bakoitzean gehiengoa osatzen duen jatorriak baldintzatu egiten ditu datuak. Horrela bada, ezberdintasun nabariena magrebtarren pisuan dago. EAEn jatorri atzerritarra duten DBEren jasotzaileen artean % 28,7 suposatzen badute, Arrasaten zenbaki hau ia bikoiztu egiten da, % 52,1ean kokatzen delarik. Are gehiago, magrebtar jatorria dutenak DBEren erabiltzaile guztien –bertakoak barne– % 28,6 suposatzen dute Arrasaten, laurden bat baino gehiago beraz.

Era berean, EAEn baino ehuneko handiagoak erakusten dituzte Arrasaten DBE jasotzaileen artean Saharaz hegoaldeko Afrikakoek —% 21,9 eta EAEn % 9,5— eta Asiakoek —% 11,2 eta EAEn % 3,8—. Pobreziari buruzko datu orokorrak kontutan hartzen baditugu, jatorri hauek dira —Magreb, Saharaz hegoaldeko Afrika eta Asia— bereziki okerren egoten direnak jatorri atzerritarra duten pertsonen artean. Jatorri horiek esanguratsuegiak ez izan arren ere, EAEn baino pisu gehiago dute Arrasaten. Kontrako errealitatea erakutsi izan dute Europar Batasunak edo Latinoamerikak, normalki egoera sozioekonomiko hobean aurkitzen dira. Arrasateko kasuan latinoamerikarren pisua EAEkoaren antzekoa den arren —% 46,6 eta % 47,7 hurrenez hurren—, Europar Batasunetik etorritakoak ia erdia dira hizpide dugun herrian —% 22,6 EAEn eta % 12 Arrasaten—.

Jatorri bakoitzaren zaurgarritasuna sakonago aztertzeko, DBEren datuak erroldarekin harremanetan jarri behar dira. Hori da hain zuzen ere 34. grafikoan aurkezten dena. Bertan, jatorri atzerritarreko pertsonen jatorri-zonaldearen arabera erroldan eta DBEren erabiltzaileen artean duten pisua jasotzen da, horrek gizarte-zaurgarritasunaren inguruko informazio zehatzagoa ezagutzea ahalbidetzen duelarik. Jatorriaren batek DBEren erabiltzaileen artean erroldan baino pisu gehiago badu, kolektibo horren gizarte-zaurgarritasuna handia dela esan nahiko du; eta alderantziz, DBEren erabiltzaileen baitan erroldan baino pisu gutxiago badu, gizarte-zaurgarritasun txikiagoa izango du jatorri horrek.

34. grafikoa. Jatorri atzerritarra duten pertsonak erroldan eta DBE jasotzaileen artean Arrasaten (%). 2018 eta 2019ko maiatza



Iturria: Egileak egina Lanbide eta EINeko datuetatik abiatuta.

34. grafikoak aurreko datuak hobeto ulertzeko balio du, jatorri bakoitza DBEren jasotzaileen artean gain-ordezkatua dagoen ala ez ikusteko balio baitu. Jatorri desberdinen artean Magreb da era argi batean tendentzia hori irudikatzen duena. Erroldan % 17,8 suposatzen duen arren, DBE jasotzen duten bizikidetzaren unitateen baitan % 52ra iristen da jatorri atzerritarra dutenen artean. Kontrako dinamikarekin agertzen zaigu, aldiz, Latinoamerika. Jatorri atzerritarra dutenen ia erdia (% 46,6) suposatzen dute erroldan eta % 24a DBE jasotzen dutenen artean.


Latinoamerikarren kasuan esperotakoa da zaurgarritasun gutxiago agertzea, izan ere, Arrasateko herrian egonkortuta dagoen jatorri-zonaldea. Hasieratik pisu gehien izan duen jatorria da, 2002an jada % 46 ziren. Horien artean gehiengoa emakumeak dira (% 63,5) zaintza lanak egitera etorritakoak. Lan merkatuan murgilduta daude beraz, eta horrek DBE erabili beharretik salbuesten ditu. Dena den, kontuan izan behar da baita ere azkenaldian Latinoamerikaren baitako jatorri berrien agerpena eman dela, Hondurasekoena, besteak beste. Horrek ere DBE jasotzetik salbuesten ditu, prestazio horren beharra izan ala ez izan, hori jasotzeko bete beharreko 3 urteko erroldaren eskakizuna betetzen ez dutelako.

Neurri apalago batean, baina norabide berdinean agertzen zaigu Europar Batasuna, % 12 dira erroldan eta soilik % 2,9 jatorri atzerritarra duten DBEren erabiltzaileen artean.

Argi gelditzen da beraz, Arrasaten bizi diren magrebtarrak direla gizarte-zaurgarritasun eta pobrezia tasa altuenak pairatzen duten taldea etorkinen artean, oso era nabarian gainera. Beste aldetik, eta jadanik aipatu bezala, latinoamerikarren gizarteratze prozesuak erraztasun gehiago dituela ematen du.

Datu eta ideia hauekin sakontzeko asmoz ondorengo 35. grafikoan DBEren pertzepzio tasaren estimazioa⁷ egiten da, jatorri bakoitzaren baitan erroldatuen kopurua eta DBEren onuradunen kopuruak harremanetan jarritz. Datuek aurreko grafikoan jada aipatutako tendentziak baieztatu egiten direla erakusten digute.

35. grafikoa. DBEren pertzepzio tasa jatorriaren arabera Arrasaten (%). 2018 eta 2019ko maiatza



Iturria: Egileak egin Lanbide eta EINeko datuetatik abiatuta.

32. grafikoko datuak tentuz hartu behar badira ere, errealitate honetan sakontzeko baliagarriak suertatzen dira. Era nabarmenean magrebtarrak dira tasa handiena azaltzen dutenak, % 34,3arekin. Ondoren Saharaz hegoaldeko Afrika kokatzen da (% 15,9). Hortaz jatorri afrikarrak dira egoera okerrean azaltzen dutenak DBE jasotzerako momentuan eta zaugarritasun handiena azaltzen dutenak.

Jatorri afrikarren atzetik Asia (% 8), Latinoamerika (% 6) eta Europar Batasuna (% 2,8) kokatzen dira. Tasa txikiena azaltzen duen jatorria bertan jaio direnena da, % 1ean kokatzen dena hain zuzen ere.

⁷DBEren pertzepzio tasa tentuz interpretatu behar da, hainbat hutsune metodologiko baititu. Tasa hau kalkulatzeko Arrasaten erroldatuta dauden jatorri atzerritarra duten pertsonak hartzen dira kontuan alde batetik eta bestetik DBEaren pertsona titularren jatorriak. Erroldan pertsonak neurtzen ditugun bitartean, DBEren kasuan titularrak aztertzen ditugu, titular horrek bere kargu beste pertsona ezberdinak izan ditzakeelarik. Beraz magnitude ezberdinak batzen dira tasa hau ateratzeko. Era berean, ezin da alde batera utzi, jatorriaren arabera DBE jasotzen duten bizikidetz-unitateen tamaina aldatu egiten dela, horrek ere nahasteak sortzen ditu burututako estimazioan. Horrela, oro har, pertsona magrebtarrez osatutako bizikidetz-unitateak beste jatorri batzuetakoena baino txikiagoak -batzuetan pertsona bakarrekokoak- izaten dira, hauek gain-ordezkatuta agertu daitezkeelarik estimazioa burutzerakoan. Dena den, eta aipaturiko mugak presente izanik, txosten honetan lantzen ari den atal hau hobeto ulertu eta interpretatzeko baliagarriak diren datuak direla uste da.

9. taula. DBEren pertzepzioa jatorria eta auzoaren arabera Arrasaten. 2019ko apirila

| | Populazioa | Guztira % | Atzerritarrak % |
|------------------|------------|-----------|-----------------|
| Altamira | 1.015 | 1,0 | 15,2 |
| Hirigune Zaharra | 1.319 | 3,2 | 14,1 |
| Ferial | 979 | 1,8 | 10,5 |
| Musakola | 2.524 | 1,0 | 5,2 |
| Olan | 1.202 | 1,3 | 5,7 |
| Baserri Auzoak | 3.603 | 2,9 | 12,9 |
| San Andres | 1.782 | 2,7 | 16,1 |
| San Juan | 2.739 | 1,4 | 6,6 |
| Santa Marina | 1.183 | 1,6 | 7,7 |
| Santa Teresa | 1.022 | 2,8 | 9,5 |
| Uribarri | 2.346 | 2,4 | 13,3 |
| Uribe-Munar | 1.089 | 0,5 | 3,7 |
| Zarugalde | 1.244 | 1,7 | 9,2 |

Iturria: Egileak egina Lanbideko datuetatik abiatuta.

DBEarekin bukatzeko, aztertuko diren azkeneko datuak auzoetakoak izango dira. 9. Taulak auzo bakoitzean bizi den populazioa, populazio horretatik zenbatek jasotzen duten DBE eta hauetatik zenbat diren atzerritarrak da jasotzen du. Pertzepzio orokorrari dagokionez Hirigune Zaharra da tasa handiena azaltzen duena, bertan bizi diren pertsonen % 3k jasotzen du DBE. Ondoren baserri auzoak (% 2,9), Santa Teresa (% 2,8) eta San Andres (% 2,7) kokatzen dira. DBE gutxien jasotzen diren auzoak Uribe-Munar (% 0,5), Musakola (% 1) eta Altamira (%1) dira.

Atzerritarren pisuari dagokionez, San Andres auzoa da ehuneko handiena agertzen duena, auzo horretan DBE jasotzen dutenen artean % 16,1 atzerritarrak direlarik. Atal soziodemografikoan atzerritarrak auzoka aztertzerakoan -12. grafiko- jadanik ikusi da etorkinen proportzio handiena biltzen duen auzoa dela, beraz ez da harritzekoa DBE jasotzaileen artean etorkin tasa altuena agertzea. Honen atzetik Altamira (% 15,2), Hirigune Zaharra (% 14,1) eta Uribarri (% 13,3) kokatzen dira. Atzerritarren auzokako presentzia aztertzerakoan ere antzeko zonaldeak agertzen zitzaizkigun atzeritarren proportzio handienekin, hots, Hirigune Zaharra, Santa Marina eta Uribarri. Beraz, nolabait, esperotako datuak lirateke. Auzo horietan gainera, magrebtarren presentzia oso esanguratsua da, hain zuzen, DBE gehien jasotzen duen jatorria.

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL)

Arrasateko udalak ahalbidetutako datuen arabera, 2018an zehar 230 pertsona izan ziren Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eskuratu zituztenak. Horien artean 129k nazionalitate atzerritarra zuten, 101ek berriz nazionalitate espainiarra. Proportzioan, beraz, atzerritarrek gehiagotan erabili zituzten halako laguntzak —36. grafiko—.


36. grafikoa. Atzerrian eta bertan jaiotako GLLen erabiltzaileak Arrasaten(%). 2018



Iturria: Egileak egina Arrasateko udalaren datuetatik abiatuta.

Atzerritarren artean marokoarrak dira laguntza hauen erabiltzaile nagusiak (% 34), aljeriarrek (% 13), pakistandarrek (% 12) eta Saharaz hegoaldekoek (% 9) jarraitzen diete —37. grafikoa—. Afrikarrak dira, beraz, DBEren kasuan gertatze den moduan, prestazio hauek gehien erabiltzen dituzten jatorriak —nagusiki magrebtarrak—. Horrek, berretsi egiten du jatorri honek agertzen duen gizarte-zaugarritasun egoera sakona.

37. grafikoa. GLL jasotzen duten atzerritarren herrialdearen arabera (%). 2018



Iturria: Egileak egina Arrasateko udalaren datuetatik abiatuta.

DBE, GLL eta pobrezia inguruko gogoetak

Pobrezia inguruko atal honekin bukatzeko, eta landu diren datuetatik abiatuta, hainbat ondorio atera daitezke. Lehenik eta behin, argi gelditzen da Arrasaten jatorri atzerritarra duten pertsonen bertako jatorria dutenak baino zaugarritasun eta pobrezia gehiago pairatzen dutela, eta hauen artean Afrikatik datozenen egoera azpimarratzekoa da. Magrebtarrak, nagusiki, eta Saharaz hegoaldeko afrikarrak ageriko gizarte-zaugarritasuna pairatzen dute eta datu horiek kontuan hartu beharrekoak dira. Egoera hau EAE osoan ematen da eta ez soilik Arrasaten.


Azpiatal honen hasieran aipatu da pobrezia eta DBE edota GLL bezalako diru laguntzak batera aztertu behar direla eta jatorri atzerritarra duten pertsonen azterketa egiterakoan ere, elementu hau oinarritzkoa da; izan ere, ezin ditugu DBE edo GLLari

buruzko datuak ulertu pobrezia-tasekin erkatzen ez baditugu. Hain zuzen, gizarte-zaurgarritasun gehien pairatzen duten kolektiboak dira DBE gehien jasotzen dutenak, eta alderantziz, egoera ekonomiko hobekoan aurkitzen direnak gutxiago behar dute.

Hori bera gertatzen da jatorri atzerritarra duten pertsonen kasuan ere. Ikusi den bezala, euren pisu demografikoa eta DBE erabiltzaile gisa erakusten duten tasa alderatzen badira, argi dago bertakoek baino gehiago jasotzen dutela laguntza hau jatorri atzerritarra duten pertsonenak. Baina hori ez da jatorri atzerritarra izateagatik gertatzen, baizik eta pobrezia eta gizarte-zaurgarritasun gehiago pairatzen dutelako eta, ondorioz laguntza gehiago behar dutelako. Hori da hain zuzen, atzerritarrak erabiltzaile potentzial izatea azaltzen duen faktorea.

Arrasateko pobrezia-erburuzko datu zehatzik ez dugunez, EAerako ditugunak aztertuko ditugu, horrela, bertakoa eta atzerritarra den populazioaren artean dauden diferentziak landu ahal izateko, 38. grafikoan ikusi daitekeen moduan.

38. grafikoa. Pobreziaren bilakaera EAEn jatorriaren arabera. 2008-2016



Iturria: Egileak egina Pobrezia eta Gizarte-Ezberdintasunei buruzko inkestako (Eusko Jaurlaritza) datuetatik abiatuta.

Bertako populazioaren pobrezia tasa atzerritarrena baino askoz ere baxuagoa dela ikusten da. Tasa hori urtez urte igotzen joan den arren —% 2,9tik 4,1ra—, batzuen eta besteen arteko tartea oso handiak dira. Populazio atzerritarren pobrezia tasak oso altuak izan dira urte ezberdinetan, bai krisia hasi baino lehen —2008—, baita krisian zehar eta ondoren ere. Krisi garaiko momenturik gogorrean hauen pobrezia tasa % 36,2raino igo zen, krisi osteko datuak berriz zertxobait baikorragoak dira, azken bi urteetan tasa hori dezente murriztu delarik: 2014an % 36,2koa izatetik 2016an % 30,7ra jaitsi da; bertakoena mantendu egiten den momentu berean hain zuzen ere.



4

Ondorioak

Azken atal honetan, txosten kuantitatiboari loturiko ondorio nagusiak aipatuko dira. Arlo soziodemografikoari dagokionez, zifra deigarri eta esanguratsuak azpimarratu eta horietan arreta ipiniko da. Horrela bada, lehenik eta behin, argi ikusi da Arrasaten immigrazioaren fenomeno gaiza berria dela, azken urteetan garapena izan duena. 1998. urtean soilik populazioaren % 0,4ak bazuen atzerritar nazionalitatea, 2018. urterako kopurua % 6,8ra igo da. Datu hau EAEkoaren antzekoa da (% 6,9) nahiz eta estatukotik urrun kokatzen den (% 10,1).

Nazionalitatearen irizpidea erabili beharrean atzerrian jaiotakoen datua aintzat hartzen badugu berriz —nazionalizazio prozesuak kontutan hartu ahal izateko—, Arrasateko atzerrian jaiotakoen ehunekoa 9,3koa da, EAEkoaren (% 9,4) eta Gipuzkoakoaren (% 9,5) parean kokatzen delarik, eta berriro ere Espainiakotik urrun (% 13,7). Beraz, lehenengo ondorio nagusi bezala Arrasateko jatorri atzerritarra duten pertsonen kopurua ez dela beste lekuetan baino handiagoa esan dezakegu, EAEkoaren eta Gipuzkoakoaren berdina baita.

Bigarrenik, eta emandako bilakaerari erreparatuz, Estatuan zein EAEn bi fase bereizten dira: krisi aurrekoa, zeinetan hazkunde nabarmenenak ematen diren, eta krisi garaiari dagokiona, hazkunde txikiagoek ezaugarritzen dutena. Estatuari dagokionez etenaldi bat izan da hazkunderetan, aldiz EAE eta Arrasaten mantentzeko joera nabarmendu da, beraz krisiaren eragina ez da hain nabaria izan azken bi leku horietan.

Arrasateko kasu zehatzean are gutxiago nabarmendu da krisiaren eragina, fluxuen hazkunderak etengabe gorantz jarraitu baitu —beste leku batzuetan etenaldiak eta beheranzko dinamika eman diren bitartean, nagusiki 2012tik 2014rako denboraldian—. EAEn kasuan post-krisi eszenatoki batez hitz egin daiteke, fluxuak errekuiperatuz doazelako; Arrasateren kasuan berriz, ezin liteke eszenatoki berri horretaz hitz egin,

krisiak eragin sakonik izan ez duelako. Kasu honetan, beraz, hasieratik mantentze joera orokor bat nabarmenduko litzateke.

Hirugarrenik, eta jatorrietan arreta jarritz, erdialdeko eta hegoaldeko Amerika da jatorri nagusia Arrasaten —nagusiki Kolonbia eta Hondurasekoak— atzerrian jaiotakoen % 46,6 osatzen dutelarik. Horiei magrebtarrek (% 17,8) eta asiarrek (% 16,3) jarraitzen diete, funtsean lehendabizikoak marokoarrez eta bigarrenak pakistandarrez osatuta daudelarik. Datu hauek EAEkoekin eta Gipuzkoakoekin konparatzen baditugu, hiru lekuek antzeko joerak erakusten dituztela ikusten da; ezberdintasun nagusia Arrasaten europarrek erakusten pisu txikiagoa —EAEn baino 10 puntu eta Gipuzkoan baino 24 puntu gutxiago— eta magrebtar —3 puntu gehiago— zein, batik bat, asiarren pisu handiagoa —8-9 puntu gehiago— izango litzateke.

Dena den, jatorrien banaketan ere izan da bilakaerarik. Migrazio fluxuen hastapenetan, 2000. hamarkadako lehendabiziko urteetan hain zuzen, europarren pisua oso esanguratsua zen, atzerrian jaiotakoen % 41,6 osatzen zutelarik; magrebtarrek, Saharaz hegoaldekoek eta asiarrek, aldiz, pisu txikia zuten. Urteetan aurrera egin ahala, errealitatea aldatuz joan da; europarrek pisua galdu dutelarik —2018an % 12 dira— eta magrebtarren, Saharaz hegoaldekoen eta asiarren presentzia nabarmendu egin delarik —2000. urtean % 5 baino kopuru txikiagoak izatetik, % 17,8, % 7 eta % 16,3ra igarotzen dira, hurrenez hurren—.


Gizarteratze eremuen atalera pasata, zenbaitetan zaila da ondorio argiak ateratzea Arrasateko herriarentzat, datu faltagatik nagusiki. Dena den, EAERako zentzua duten hainbat ondorio baliagarriak zaizkigu udalerrirako ere.

Honen harira, ikusi da populazio atzerritarren pisua osasun arretan edota ikastetxeetan ez dela handia —beti ere, erakusten duten pisu demografikoa kontutan izanik—, eta EAEko beste eskualde zein herriekin erkatuta, arlo hauetan azaltzen diren ehunekoak batez bestekoaren parean edo azpitik kokatzen direla. Ikastetxeetan erakusten duten pisua EAEkoaren antzekoa da eta sare publiko eta pribatuaren arteko desberdintasuna ematen da, batik bat Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzan, ikasle migratzaileen pisua askoz nabarmenagoa delarik sare publikoan pribatuan baino. DBH eta Batxilergoan kopuruak parekatu egiten dira.

Integrazioari begira, bertako populazioak baino egoera txarragoa agertzen du jatorri atzerritarreko kolektiboak. Zenbait gizarte-prestazio jasotzerako momentuan traba gehiago izateaz gain, hainbat adierazleetan bertako populazioa baino okerrago agertzen dira. Langabezian dauden lan-eskatzaileen baitan atzerritarrek duten pisu esanguratsua —batik bat emakumeena— edota pobrezia tasak eta horri aurre egiteko Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren zein Gizarte Larrialdietarako Laguntzaren jasotzaileen artean duten presentzia dira, besteak beste, atzerritarrek pairatzen duten gizarte-zaurgarritasunaren isla.

Jatorri ezberdinetan arreta jartzen bada, integrazio-adierazleetan gabezia eta zailtasun gehien agertzen dituen kolektiboa populazio magrebtarrarena da. Langabezia egoeran

dauden lan-eskatzaileen artean gehiengoa suposatzen dute. Gauza bera gertatzen da Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta edota Gizarte Larrialdietarako Laguntzak jasotzen dituzten jatorri atzerritarreko pertsonen artean, gehiengoa dira magrebtarrak —eta nagusiki emakumeak—. Bi datu hauek integrazio materialaren —edo integrazio ezaren— adierazle nabarmenak dira. Honi gehitzen badiogu bertako populazioak atzerritarren artean talde honekiko begikotasun gutxien erakusten duela —Ikuspegiko Barometroan urtero errepikatzen den datua da hau—, arreta berezia eskatzen duen kolektiboa dela ondoriozta dezakegu, neurri edo ekimen zehatzen inguruko gogoeta egin beharko litzatekeelarik. Magrebtarren baitan emakumeen egoera are hauskorragoa litzateke, eta beraz bereziki kontutan izan beharrekoa, datuen arabera langabeziak erabat eragiten dielako. Dena den, jatorriei dagozkion datuek erakutsi dutenez, Arrasaten magrebtarrek erakusten duten pisua ez da esanguratsuegia, azken urteetan gorakada erakutsi badu ere.



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

**ikus
pegi** Immigrazioaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de Inmigración